



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**ORIENTAZIO LASTERKETETAN OINARRITUTAKO
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA LEHEN HEZKUNTZAN
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Antepara Txurruka, Iker.

ZUZENDARIA: Bizkarra Morales, Mariate.

2021-2022

Laburpena

Lan honen helburua natur jarduerak hezkuntzan izan dezaketen garrantzia agerian jartzea, eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako sekuentzia didaktiko bat diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzea izan da. Horretarako, lehendabizi, jarduera hauek definitu eta horien orokortasunak azaldu dira. Ondoren, egungo euskal curriculumean daukaten presentzia aztertu da, nahiko murriztua delarik. Hala, literaturan, natur jarduerak, ekintzak eta jolasak Lehen Hezkuntzan (LHn) maiz barneratuz gero, zer nolako onurak eta efektuak lor daitezkeen ikusi da. Aztertutakoa kontuan hartuta, Errekabarri ikastetxean, LHko 1.mailako talde batentzako eta orientazio lasterketetan oinarritutako sekuentzia didaktiko bat diseinatu da. Pista-jolasak martxan jarri, besteak beste, umeen ulermenerako eta interpretaziorako gaitasuna, taldean aritzeko trebetasuna eta orientatzen hasteko ahalmena dira helburu.

Hitz gakoak: Natur jarduerak, Orientazioa, Pista jolasa, Lehen Hezkuntza.

Abstract

The objective of this study is to highlight the importance of activities in nature in education and to design, carry out and evaluate a didactic sequence for primary school students. To this end, the generalities of these activities have been defined and explained. Its presence in the current Basque curriculum, which is quite small, is analysed below. Thus, the literature has seen the benefits and effects that can be obtained from the frequent incorporation of activities and games in the natural environment to primary education. In view of the analysis, in Errekabarri School, a didactic sequence was designed for a group of first grade students based on careers in orientation. The implementation of track games aims, among other things, the ability to understand and interpret children, the ability to behave in teams and the initiation of guidance.

Key words: Activities in the natural environment, Orienteering, Clue game, Elementary Education

Resumen

El objetivo de este trabajo se centra en poner en manifiesto la importancia que pueden tener actividades en la naturaleza en la educación y diseñar, llevar a cabo y evaluar

una secuencia didáctica para alumnos de Educación Primaria. Para ello, en primer lugar, se han definido y explicado las generalidades de estas actividades. A continuación se analiza su presencia en el actual currículo vasco, que es bastante reducida. Así, en la literatura se han visto los beneficios y los efectos que se pueden obtener de la incorporación frecuente de actividades y juegos en el medio natural a la Educación Primaria. Teniendo en cuenta lo analizado, en el colegio Errekabarri se ha diseñado una secuencia didáctica para un grupo de 1º de Primaria y basada en carreras de orientación. La puesta en marcha de juegos de pistas pretende, entre otras cosas, la capacidad de comprensión e interpretación de los niños, la habilidad para comportarse en equipo y la iniciación a la orientación.

Palabras clave: Actividad Física en el medio natural, Orientación, Juego de pistas, Educación Primaria.

Aurkibidea

1. SARRERA.....	5
2. JUSTIFIKAZIO PERTSONALA.....	5
3. MARKO TEORIKOA.....	6
3.1. ZER DIRA NATUR JARDUERAK?.....	7
3.2. NATUR JARDUERAK EUSKAL CURRICULUM-EAN.....	8
3.2.1. ZER DIO KONPETENTZIA MOTORRAK?.....	8
3.2.2. ETAPAKO HELBURUETAN ZERBAIT AGERI DA?.....	9
3.2.3. NATURA EDUKIETAN.....	9
3.2.4. EBALUAZIO IRIZPIDEAK.....	10
3.2.5. ETA ZER GERTATZEN DA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN?.....	10
3.3. NATUR JARDUERAK IKASTETXEAN.....	11
3.4. ORIENTAZIO LASTERKETAK. ZER DIRA?.....	16
3.5. ORIENTAZIOA LHko ESKOLETAN BARNERATUZ.....	18
4. HELBURUAK.....	23
5. METODOA.....	23
5.1. TESTUINGURUA ETA PARTE HARTZAILEAK.....	23
5.2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA.....	24
5.2.1. HELBURUAK ETA EBALUAZIO DIDAKTIKOA.....	24
5.2.2. ZEHARKAKO KONPETENTZIAK.....	24
5.2.3. METODOLOGIA.....	25
5.2.4. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA.....	27
5.3. ESPAZIOA ETA MATERIALA.....	28
5.4. EBALUAZIOA.....	28
6. EGUNEROKOA.....	31
7. ONDORIOAK.....	34
8. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK.....	36
9. ERREFERENTZIAK.....	37
10. ERANSKINAK.....	42

1. SARRERA

Natura inguruneetan gauzatzen diren jardueretik daukadan pasioak eraman nau gradu amaierako lan hau egitera hein handi batean. Gaur egungo gizartean protagonismo handia duten jarduera fisiko eta kirolak dira, baina hainbat arrazoirengatik, oraindik, hezkuntza sisteman ez daukate horrenbesteko garrantzirik. Geroago azalduko dudan bezala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan presentzia handiagoa izan ohi dute, baina Lehen Hezkuntzan (LHn) nahiko ahaztuak izateko joera daukate, jarduera hauen aipamena curriculumean oso eskasa da eta.

Lan hau osatzeko, lehendabizi, natur jarduerak zer diren, zein ezaugarri nagusi dituzten eta zein motatakoak egon daitezkeen azalduko da. Jarraian, jarduera hauek gure eskoletako curriculumean zein nolako garrantzia duten aztertuko da. Ondoren, jarduera hauek hezkuntza sistemarekin erlazionatuz gero, zer nolako onura, muga edota posibilitate eman ahal dituzten ikusiko da.

Natur jarduera guztien artean, orientazio lasterketetan zentratuko naiz, horiek uste baitut izan daitezkeela egokienetarikoa LHko ikasleentzat. Hala, jarduera mota hau definituko da, bere ezaugarri nagusiak aztertuko dira eta eskoletan izan dezakeen eragina berrikusiko da.

Azkenik, gaiaren inguruan eginiko errebisio bibliografikoa eta gero, orientazioarekin erlazionatutako proposamen praktikoa aurkeztuko da. LHko 1.mailako ikasleekin aurrera eramango den sekuentzia didaktiko motz bat izango da, zenbait pista-jolasen bitartez gaitasun ezberdinak garatzeko helburuarekin.

2. JUSTIFIKAZIO PERTSONALA

Azken urteotan natur jarduerak gure gizartean izan duten gorakada zalantza gabekoa da, honako lana burutzeko motibo nagusia bilakaturik. Covid19ak eragindako pandemiak oraindik gehiago areagotu du joera gorakor hau eta asteburu oro jende asko ikusi daiteke euskal mendietan eta natur inguruneetan. Nire iritziz, pozteko motibo bada, haatik, naturaren "bezero" berri askok, bai helduek eta baita gazteek ere, erabiltzen ari diren espazioa ez dute behar bezala errespetatzen, ez jasagarritasunarekiko, ezta arriskuari dagokionez ere. Izan ere, leku askotan, zabor

pilo bat (musukoak, poltsak, aluminio-papera, ...) ikusten da, eta azken aldi honetan mendi erreskateak eta istripuak areagotu direla iruditu zait.

Lan hau egitearen beste arrazoi nagusia gaur egungo ume txiki eta gazte askoren sedentarismoa izan da. Esan bezala, natur jardueren "boom-a" gertatu den arren, bideo jokoen, mugikorren eta telebistaren aroan bizi gara, eta gazte askoren interes nagusienetako bat dela nahiko argi dago. Hala, urte batzuk geroago jarduera fisikoa egitea erabakitzean eta, kasu honetan, natur ingurunetara irteten hastean, aurreko paragrafoan komentatutakoa gertatu ohi da, euskal eskoletan curriculumaren 5. eduki multzoan aipatzen den kultura motorra lantzea ezinbestekoa bilakatuz (236/2015 dekretua, 269 orr.).

Beraz, joera hau apurtzen laguntzeko lan bat egitea erabaki dut. Eskolak, LHtik ohiturak, konpetentziak eta norberaren zaletasunak garatzeko botere oso handia izan dezakeela pentsatzen dut. Hortaz, Heziketa Fisikoa (HF)k natur jardueri protagonismo askoz handiagoa eman behar diela uste dut, ekintza hauek umeengan izan dezaketen onura guztiak direla eta, hala nola, fisikoak, psikologikoak edota sozialak.

Ni betidanik natur inguruneetara joan naiz eta, gaur egun, mendi lasterketak praktikatzen ditut. Proba hauek duten gogortasuna dela eta, mendi lasterketa bat burutzea ziur aski ez litzateke egokia izango LHko proposamen didaktiko bat bezala, baina orientazio lasterketa moduko bat praktikoagoa eta aberasgarriagoa izan daiteke adin honetako umeentzat. Curriculumak, gainera, natur jarduerak egitea eskatzen du, baina eskola gehienetan ez dira ia garatzen. Beraz, ikasleei jarduera berriak eta ezezagunak aurkeztuz gero, beren motibazioa eta interesa handiagotu daitekeela uste dut.

Errefrau indiar bat jarraituz, "norabidea galtzearen beldurrik gabe ibiltzeko momentua izan daiteke, gure ingurua behatzeko unea eta deskubritzeke dagoen mundua ezagutzeko garaia".

3. MARKO TEORIKOA

LHko ikasleekin orientazio lasterketa bat antolatu baino lehen, jarduera bera testuinguruan kokatzea lagungarria izan daiteke. Natur jarduerak lanaren ardatz izanik, justifikazio teorikoa bost zati nagusitan banatzen da. Natur jarduerak definitzen eta

ezaugarritzen hasiko gara, euskal curriculumean daukaten presentziaren eta horiek inplementatuz ikasleengan izan dezaketen efektuen azterketarekin jarraituz. Azkeneko zatian, orientazio lasterketen inguruan eta hezkuntza sisteman izan dezaketen garrantziari buruz hitz egingo da, proposamen didaktikoari hizpidea emanez.

3.1. ZER DIRA NATUR JARDUERAK?

Natur jardueren historia gizakiaren eboluzioarekin erabat erlazionatuta dago. Izan ere, era primitiboan biziraupenerako behar bat bezala ikusten ziren jarduera hauek, baina orain, aldiz, errekurtsio amaigabeak ditugunez, gehienbat aisiarako erabiltzen diren jarduera bezala ditugu (Baena & Baena, 2003). Gizakiak naturarekin daukan erlazioa bizi den gizartearen eta ohitura kulturalen arabera izango da, historian zehar etengabe aldatuz (Guillén et al., 2000). Gaur egun, bi ikuspuntu nagusitzen dira natur jardueren inguruan: aisiakoa eta hezitzailea, eta lehiakorra. Lehenengo ikuspegia daukatenez sentsazio eta emozio berriak bilatzen dituzte eta, bigarrenek, aldiz, garaipenaren bila jarduten dute (Baena & Baena, 2003).

Hala, pertsona batek natur jarduerak egiteko zenbait arrazoi izan ditzake, hala nola, errutinatik ihes egiteko, naturarekin kontaktatzeko desioa dela eta, aire garbia arnasteko eta norberarekin konektatzeko, sentsazio gogorak probatzeko eta sentitzeko, erronka pertsonalak segitzeko, leku bakartiak, ezezagunak eta jende gutxikoak ezagutzeko, eta abar (Canales & Perich, 2000).

Natur jarduerak zer diren azaltzeko definizio asko daude, baina honakoa izan daiteke hoberen deskribatzen dituen: diziplinartekotasunagatik eta naturarekin daukaten kontaktuagatik nabarmentzen diren jarduera multzoa, zeinek hainbat helburu izan ahal dituen (lehiaketa, aisia, heziketa, ...) eta derrigorrezko osagai bat izan behar duen: ingurunearen ziurgabetasun minimo bat (Tierra, 1996, in Arribas, 2008, 80.orr). Bernadetek 1991n esan zuen bezala, orokorrean, beste puntu batera era indibidualean edo kolektiboan desplazatzeko helburua duen jarduera fisikoak dira, ingurune fisikoa ezaugarritzen duten elementuak erabiliz edo horien aurka eginez.

Olivera eta Oliveraren lanean (2016), gaur egungo natur jardueren sailkapen eta taxonomia oso lan interesgarri bat egin zen. Artikulu honetan, jarduerak zein ingurune natural motetan gauzatzen diren arabera sailkatzen dira, lau motatakoak izan daitezke larrik: uretakoak (surfa, bodyboard, snorkel, arroila-jaitsiera, windsurf, ...), airean eginikoak (parapente, tirolina, erorketa librea, puenting, ...), lurrazalean

eginikoak (mendi lasterketa, orientazioa, skate, parkour, snowboard, eskalada, ...) edota motorrez egindakoak (moto-kros, rally, jetman, ...).

lido beretik, zenbait aspektu kontuan hartuta, jarduera guzti horiek deskribatu dituzte, hala nola, testuinguru fisikoa (ziurgabetasuna), testuinguru pertsonala (bilatutako sentazioak, irristatze mota, ...), praxiologia (psikomotorra edo sozomotorra), ingurunearekiko kalte ekologikoa eta kiroltasun izaeraren arabera (Olivera & Olivera, 2016).

Caballero et al.ek (2018), natur jardueren ezaugarri eta bereizgarri nagusien inguruan burututako lanen errebisio bat egin ostean, natur jardueren faktore unibertsalak definitu zituzten, honako hauek aipatzen: interakzioa, natura, ekologismoa, erronka edota abentura, ziurgabetasuna, arriskua, emozio eta zentzuen estimulazioa, ludikotasuna eta aisia, esperientzia, garapen pertsonala, eta neurri txikiago batean, kirol izaera eta baliabide biologiko eta teknologikoak.

Canales eta Perich-ek (2000), eskuragarritasunaren arabera, bi natur jarduera mota sailkatu zituzten. Alde batetik, eskuragarritasun zaileko jarduerak daude, eta abenturazko kirolak sartuko lirateke (alpinismoa, arroila-jaitsiera, espeleologia, BTT, aire kirolak, ...). Jarduera hauek teknologia eta kondizio fisiko altua eskatzen dute, eta errotze maila baxua izaten dute gizartean. Beste aldetik, eskuragarritasun errazeko jarduerak ageri dira, aisia jarduerak direlarik: xenda-zaletasuna, txangoak, arrantza, ehiza, ... Beste hauek ez dute besteek bezalako teknologia eta sasoi fisiko mailarik exijitzen, eta gizarte bateko kulturaren oso sendotuta egon ohi dira.

3.2. NATUR JARDUERAK EUSKAL CURRICULUM-EAN

3.2.1. ZER DIO KONPETENTZIA MOTORRAK?

Konpetentzia motorraren definizioan eta osagaietan natur jardueren inguruan ez da ezer aipatzen. Ondoren, konpetentzia honen zenbait ezaugarri eta arloarekiko ikuspegia azaltzen dira, irakasgaia aurrera eramaterako orduan irakasleok kontuan hartu beharrekoak. Esate baterako, gizarte batean egiten diren jarduera fisikoek gizarte horren kultura motorrarekin erlazio estua daukatela eta, beraz, eskolan jarduera horiek bultzatzea ezinbestekoa dela. Hala, euskal gizartean nabarmentzen diren zenbait ekintza mota azaltzen dira (luzaketak, karrera-entrenamenduak, ...), eginkizun motor ezberdinak landu behar direla azpimarratuz, baina natura-jarduerak alde batera uzten

dira, gaur egun gure herrialdean zelako garrantzia duten jakinik (236/2015 dekretua,103-108.orr.).

Natur jardueren denboralizazioari dagokionez, LHko lehenetako urteetan ez dira gomendatzen, batez ere egoera psikomotorrak eta ziurrak (gimnasioa, psikomotrizitate gela eta abar) lantzea azaltzen baita. Ikasturteak pasa ahala, eta umeek abilezia handiagoa erakutsi ahala, egoera sozomotorrak eta bestelako ingurune fisikoetan garatutako jarduerak sartzen joan behar gara, hala nola, izaera ezegonkorrekoak. Hala ere, nire ustez, adinari egokitutako jarduera sinpleagoak diseinatu daitezke, edota jarduera konplexuagoak ikasle nagusiagoek lagunduta aurrera eraman ditzakegu.

Konpetentzia motorra azaltzen den atal honetan azpimarragarriena honakoa da: euskal lurraldean ditugun espazio naturalak aprobetxatu behar direla ariketa fisikoa eta kirola egiteko eta, bide batez, bizitza estilo osasungarriak bultzatzeko (236/2015 dekretua,107.orr.).

3.2.2. ETAPAKO HELBURUETAN ZERBAIT AGERI DA?

HF irakasgaiari sartuz, etapako helburuetan ingurune fisikoko eta naturako jardueri buruz ez da ezer aipatzen, baina zerrendatutako laugarren helburuan sartu genitzake, honela baitio:

“Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako jolas-tradizioak, jarduera fisikoen eta kirol-jardueren tradizioak nahiz adierazpen-tradizioak ezagutzea, haien balioak errespetatzeko eta balioesteko, jolas eta adierazpen tradizionalak eta herrikoiak praktikatzu” (236/2015 dekretua, 268.orr.).

3.2.3. NATURA EDUKIETAN

Era berean, lan honetan protagonista diren jarduera motak, testuan azaldu ez arren, Heziberriko curriculumean zerrendatzen diren LHko bosgarren eduki multzoan sartuko liriteke, honela diola:

“Azkenik, 5. multzoan (Kultura motorra: Aisia eta denbora librerako hezkuntza), jolasarekin eta kirol-jarduerekin lotutako edukiak landuko dira, giza motrizitatearen kultura-adierazpen gisa ulertuta” (236/2015 dekretua, 269.orr.).

LHko lehenengo zikloan natura jarduerak ez liriteke landuko, baina bigarren zikloko edukietan honako hau aipatzen da: *“Ariketa fisikoa eta kirolak egitea natura-*

ingurunean, ingurumen-inpaktu arina eginez eta ingurumena zaintzen lagunduz” (236/2015 dekretua, 274.orr.).

Euskal curriculumaren berriazko edukien zehaztapenaren atalean zenbait multzo agertzen dira, izaera ezberdineko jarduerekin. Azpimarratzekoa da nola zerrenda honen bosgarren multzoan, “Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza” deiturikoa, orientazio lasterketa aipatzen den beste jarduera batzuen artean. Berezko euskal joko bat bezala ageri zaigu eta daukaten aberastasun psikomotor, sozomotor eta kulturalarengatik bereizten dira. Espazioaren antolaketa eta pertzepzioa lantzen duten jarduerak dira, ikurrinaren edo banderaren jokia ere adibidetzat adierazten delarik (236/2015 dekretua, 275.orr.).

3.2.4. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

LHko curriculumarekin amaitzeko, edukietako bat natur inguruneari erreferentzia egiten dion arren, nahiko harrigarria da nola bigarren zikloko ebaluazio irizpideetan eta lorpen adierazleetan ez den ingurune fisikoarekin loturiko ezer azaltzen.

3.2.5. ETA ZER GERTATZEN DA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) HF irakasgaiaren curriculum zatian askoz aipamen gehiago egiten dira natur jardueren inguruan, maila guztietan baita eduki. 1.mailan, LHko bigarren zikloan aipatzen denaren oso antzekoa ageri da: “*Ariketa fisikoa eta kirolak egitea natura-ingurunean, eta horiek egitean, ingurunea zaintzeko arauak eta segurtasun-arauak betetzea, orientazioko teknika oinarrizkoak lantzea eta logistika-baldintza oinarrizkoak zaintzea*” proposatzen da (236/2015 dekretua, 711.orr.).

DBHko bigarren mailan natur jarduerak burutzeaz gain, jarduera bera ere diseinatzea eskatzen da: “*Ibilbideak egitea ingurune naturalean eta hiri-ingurunean, eta bide-ibiliak baliatzea jarduera horiek egiteko, segurtasun-arauak beteta, naturaren eta hiri-ingurunearen erabilera egokia egin beharraren garrantziaz jabetuta, ingurune horiek errespetatuta eta aisia-jarduerak egiteko dakarkiguten aberastasuna balioetsita*” (236/2015 dekretua, 713.orr.).

Gehienbat, hirugarren mailan landuko litzateke orientazioa, aurreko bi ikasturteetan ikasitakoa aplikatuz: “*Orientaziorako ibilbideak diseinatzea eta ibiltzea, naturan orientatzeko elementu oinarrizkoak baliatuta, mapak erabilia eta segurtasun-arauak*

beteta, orientazio-ibilbideak egiteko landa- eta hiri-inguruneetan” (236/2015 dekretua, 714.orr.).

Azkenik, 4.mailan curriculumak askatasun handia ematen du natur jardueri dagokienez: *“Jolas eta jarduera fisiko arautuak eta arautu gabeak egitea naturan”* (236/2015 dekretua, 716.orr.).

Curriculumaren ikuspuntutik, DBHn naturan garatutako jardueri ematen zaien garrantzia ikusita, LHko ziklo ezberdinetan daukan presentzia oso urria da. Hortaz, nire ustez, aldatu beharreko joera bat izan behar da, ikasle gazteenak naturara gerturatuz eta hurrengo urteetan topatuko dutenarekin trebatzen hasteko eta, agian, bide batez, pasio ezkuturen bat pizteko.

3.3. NATUR JARDUERAK IKASTETXEAN

Lehendabiziko atalean, parte hartzaileek natur jarduerak burutzeko izan ditzaketen motibazioak aipatu dira. Honakoan, batik bat, jarduera hauek ikastetxeetako programetan barneratzeko arrazoiak, abantailak, mugak eta efektuak aztertuko dira, aurretik denboran hiru mende atzera eginez.

Rousseauk, XVIII.mendean, natur jarduerak hezkuntza sisteman barneratzerako orduan garrantzi handia izan zuen, bere mezua “Emilio” izeneko obraren bitartez zabaldu zuelarik. Bere dizipulu batek, Pestalozzi hain zuzen ere, hezkuntza era sinple eta natural batean izan behar zela adierazi zuen. Bera eta GutsMuths, Alemaniako eskolakoak biak, gimnasia pedagogikoaren aitzindari bezala agertzen dira. Metodo honen arabera, HFn ariketa naturalak, plazera eta ingurune naturalaren gozamina aldarrikatzen ziren.

Bestalde, Frantziako eskolan, Amorósek gimnasia ortosomatikoa garatu zuen, zeinetan mugimenduak egiterakoan garrantzia zentzuei ematen zitzaion, batez ere ingurune naturalean burutuz gero (Baena & Baena, 2003). Beranduago, Amorósen jarraitzaile batek, Georges Hébertek, bere pausoak jarraitu zituen, jarduera fisikoa ingurune naturalean burutzea goraiapatuz eta metodo naturala garatuz. Honela, pedagogo askok (Rudolf Steiner eta Waldof eskolak, Ferrier eta landa eskolak, ...), pertsona osasuntsuak, osoak, integralak bilakatzeko helburuarekin, bere ikasleak naturara era erregular batean eraman behar zituztela erabaki zuten. Hala ere, garai hartan (XIX.

mendea), natur jarduera oso gutxi zeuden, aniztasun gutxikoak, erregulatu gabeak, garesti xamarrek eta zailtasun handikoak.

Geroago, XX. mendearen lehenengo erdian, natur jarduerak erakundetzen hasi ziren eta, ondorioz, jarduera aniztasunak gora egin zuen gaur egunera arte, horietako asko kirol bilakatu izan direlarik (eskalada, eski, ...) (Baena & Baena, 2003).

Egun, natur jarduerak protagonismo handia dute gure bizimoduan, baina gazteenek, orokorrean hitz eginda, beste ikuspuntu bat daukate eta entretenimendua beste aspektu batzuetan aurkitzen dute (bideojokoak, hiriko bizimodua, teknologia berriak, eta abar). Hortaz, askok bere lehenengo pausoak eta urteak hirietako kaleetan ematen dituzte, landa-munduaren motrizitate-botereari onurarik ez ateraz (Moreno, 2011).

Umeentzat jarduera motibagarriak dira, baina hezkuntza eremuan protagonismoa galtzen ari dira. Beraz, HFko irakasleak, horrelako jarduerak aurrera eramateko irakasgai "pribilegiatu" bat dutelarik, ingurune naturalean jolasak eta esperientzia ezberdinak lehenesten saiatu beharko lirateke. Gainera, ikasgela, patioa eta liburuak alde batera uzten direnez, ikasleriaren eta irakasleriaren gehiengoaren jarrera positiboa izaten da (Arufe et al., 2012).

Caballeroren eskutik (2014), natur jarduerari botere hezitzailea ematen dizkien zenbait ezaugarri ezagutzen ditugu: izaera soziala, natur ingurunea bera eta horrekiko interakzioa, ziurgabetasunaren eta arriskuaren balantzea, irristakortasuna, motrizitatea, esperientzia izaera eta karga emozionala.

Natur jarduerak jarduera fisiko bezala ere hauteman ditzakegu, osasuna, ohitura osasuntsuak eta aisia bezalakoak bilatuz. Horrez gain, natur ingurune jakin batean momentuko arazoak eta egoera ezberdinak era efektiboan konpontzeko ezaugarriak eta estrategiak landu daitezke, hala nola, baso batean orientatzeko, bizikleta bide oso estu batetik ondo eramateko edota eremu zail batean rappel bat egiteko. Natur tresnak motxilan ditugu, baina horiek erabiltzen jakin behar dugu (Baena & Granero, 2011). Beraz, jarduera esperientzialak direla baieztatu daiteke, bizitzarako ikaskuntzaren parte izanik (Santos & Martinez, 2011).

Jarduera hauen diziplinartekotasuna aipatzea ezinbestekoa da. Izan ere, euskal curriculum-aren konpetentzia, helburu eta edukietara, eta ez bakarrik HFko horietara, era ezberdin eta erakargarriago batean gerturatu daitezke. Ikasleek, aldi berean ikasi eta disfrutatu egiten badute, haien garapen integralerako egoerak jasotzen ari direnaren seinale izan daiteke (Arufe et al., 2012).

Garapen integral bat eragin ditzaketen egoerak aurkezten badira, ezagutza arlo ezberdinak landu daitezke aldi berean, eta ikaskuntza adierazgarri bat lortu daiteke (Contreras et al., 2005). Esan bezala, HFko konpetentzia espezifikoak eta beste area kurrikularren askotariko edukiak lantzen laguntzen duten jarduerak dira, baina oinarrizko konpetentziak garatzeko oso aproposak izan daitezke. Batez ere, ikasteko eta autonomiarako konpetentzia, matematiketarako konpetentzia eta konpetentzia soziala indartzeko balio dezakete (Baena & Granero, 2011).

Aipatutako diziplinartekotasuna lortu ahal izateko jarduera hauek era egokian prestatzea eta exekutatzeko oso garrantzitsua da. Hasteko, esku hartzea ondo programatuta egon behar da (Gómez-López, 2008; Miguel, 2001; Parra et al., 2009; Santos & Martínez, 2008), estrategia eta errekurso metodologiko egokiak aplikatuz (Arufe et al., 2012).

Dalmak et al., 2016an DBHko 1.mailako ikasleekin egindako interbentzioan, esaterako, hiru metodologia ezberdinen arteko nahasketa batean oinarritu izan ziren: proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, arazoetan oinarritutako ikasketa eta "learning by doing" edo "eginez ikasi" izenekoak. Horrela, ikasleak, interbentzioko protagonista nagusiak bilakatzea lortu zuten. Erronkak gainditzeko eta aurkezten zaizkien arazo ezberdinei soluzioa bilatzeko gaitasuna landu zen, kooperazioari garrantzi handia emanaz eta, ondorioz, ekintzaren eta bizipen pertsonalen bidezko ikaskuntza lortu zen. Ikasleen interesa areagotzeko, jarduerari istorio tematiko bat atxikitzea lagungarria izan daiteke.

Beste metodologia oso erabilia abenturaren pedagogia izenekoak da. Ikaskuntza experimentalaren printzipio teorikoetan oinarrituta dago, eta ingurune naturaletan edota espazio urbano berdeetan garatutako jarduera fisikoen bidez heztean datza, helburu argi batekin: pertsonen humanizazio prozesuan lagundu, hau da, garapen pertsonal eta sozialean (Caballero, 2012). Metodologia honetan kooperazio sinpleko jarduerak nagusitzen dira. Parte hartzaileek helburu komun bat daukate, eta sormena eta pentsamendu dibergentearen bidez arazo ezberdinei soluzio posibleak bilatzen dituzte. Lehiaketarik ez dago, eta kooperazioan datzanez, taldekideen arteko komunikazioa egon behar da, errespetua eta tolerantzia bezalako baloreak garatuz (Parra et al., 2009).

Natur jarduerak LHko eskolan barneratzerako orduan, egokiak ziur aski, bigarren zikloko ikasgeletan burutzea izan daiteke, baina txikienentzako ere egokitu daitezke, zailtasun mailaren, edukien, helburuen, denboraren, eta abarren arabera. Beraz, ziklo

eta maila ezberdinetan landu ahal izateko, ekintza irekiak eta anitzak izatea garrantzitsua da (Contreras et al., 2005).

Zikloa zeinahi ere den, jarduera hauen bidez zenbait balore transmititu behar dira eta, irakaslea, ikasleak bezala, ez da ikusle pasiboa izan behar, baizik eta jardule aktibo. Gainera, jardueraren edo txangoaren aurretik jokabide, pauta eta arau batzuk ezartzea oso garrantzitsua da, baina batez ere arrisku fisiko bat egon daitekeen horien aurretik (Arufe et al., 2012).

Behin jarduera amaituta, bukaera-saio bat burutzea oso interesgarria izan ohi da (Arufe et al., 2012). Honetan, zenbait jarduera osagarri egin daitezke, hala nola, landutako edukien inguruan gogoeta egin, informe bat egin, eztabaida bat sortu, txosten bat burutu, taldekako lan bat sortu, eta abar (Contreras et al., 2005). Adibidez, Dalmauk et al., 2016an idatzitakoaren arabera, natur jardueren ostean galdeketa eta elkarrizketa bat egitea interesgarria izan daiteke esku hartzeari ikerketa kutsua emateko.

Goazen orain natur jarduerak izan ditzaketen onurak aztertzeraz, hiru alderdi nagusi ezberdinduz. Alde batetik, garapen mental eta pertsonalari buruz hitz egin behar da. Inteligentzia eta izaera garatu dezaketen jarduerak dira (Arufe et al., 2012). Gainera, auto-konfiantza eta auto-estima bezalako aspektuak indartu ohi dira (Cantero, 2011). Horietaz gain, autonomia, erabaki hartzea eta helburu jakinen ezarpena lantzeko oso jarduera egokiak dira. Emozioen kudeaketa, ardura eta esfortzuaren garapenean, eta ohitura osasuntsuen sustraitzean ere laguntzen dute (Gómez-Encinas, 2008; Parra, 2001; Prouty et al., 2007; Santos & Martinez, 2011).

Beste aldetik, natur jarduerak hornitu dezaketen garapen soziala azpimarratu behar da, ziur aski, garrantzitsuena dena adin honetan. Erlazio sozialak finkatzeko eta, bide batez, beren ikaskideak hobeto ezagutzeko tresna oso egokiak izan daitezke, sozializazioa bultzatuz (Cantero, 2011). Hala, hainbat balore sozial barneratzeko aukera ematen dute: integrazioa, errespetua, enpatia, komunikazioa, asertibitatea, kooperazioa, besteeiko konfiantza, eta abar (Gómez- Encinas, 2008; Gómez-López, 2008; Parra, 2001; Prouty y cols., 2007; Santos y Martinez, 2011).

Azkenik, natur ingurunean aurrera eramandako ekintzen bitartezko garapen motorra aipatu behar da. Natur jarduerak espazio ziurgabeetan egiten direnez, ikasleek, ikastetxeko patio eta gimnasio arruntetan, eta hiriko gune ezberdinetan eskuratzen ez dituzten erantzunak hautematen dituzte. Hau da, baso, mendi, bailara, erreka, arroka-gune batek eskatzen dituen abilitateak, beraientzako berriak direnak, garatuko dituzte (Pinos, 1997). Ildo beretik, ingurune natural bateko aldakorrek direnez, bizipen

motorrak areagotuko dira eta, beraz, oinarrizko abilitate motorren lanketari garrantzi handia eman beharko zaio (Martinez & Del Moral, 1992), gaitasun fisikoak eta teknikoak ahaztu barik.

Naturarekiko errespetua ere natur jardueren helburuetako bat izan behar da. Hau da, natur ingurunea zaintzeko kontzientziarioa garatzea, haren ezagutza, kontserbazioa eta erabilera arrazional eta arduratsuaren bidez. Hala, irteera hauek, ingurunea zainduz eta hura suntsitu gabe, tresna oso egokiak bilakatzen dira ezagutzak, abilitateak, teknikak eta errekurtsioak garatzeko (Baena & Granero, 2011). Laburbilduz, natur jardueren eskutik ingurune heziketa ere burutzen da (Arufe et al., 2012).

Eskoletan, natur jardueren presentzia hainbat arrazoiengatik mugatu ohi da. Hasteko, jardueraren arabera, ikaslearen ongizate fisikorako arrisku bat izan daiteke, eta ondorioz, irakasle askok eremu ziurragoetan (eskolan bertan) aurrera eramatea nahiago izaten dute. Honekin erlazionaturik, irakaslearen ardura maila ageri da, hau da, maisuak edo maistrak ume talde oso bat kontrolatu, kudeatu eta ezer ez gertatu dadin ziurtatu behar du. Gainera, HFko irakasleak edo tutoreak nahiko bakarrik aurkitzen du bere burua jarduera hauen aurrean, zentroen laguntza oso eskasa izaten baita. Bestalde, irakasleen formazioa handiagotzeko eta kalitatea hobetzeko kurtsioak aurrera eraman beharko lirateke, dagozkien edukiak dominatu ahal izateko (Arufe et al., 2012).

Natur jardueren beste muga bat ingurune naturalaren gertutasun eza izan ohi da. Eskolako testuinguruan, arazo honen aurkako soluzio ia bakarra ingurune naturalean egingo liratekeen jarduera fisikoak eta jokoak egokitzea eta diseinatzea izan ohi da, ahalik eta efektu hezitzaile antzekoenak bilatuz (Baena & Baena, 2003). Ildo beretik, eskolako natur jarduerak praktika testuinguruaren arabera sailkatu daitezke (García et al., 2005; García & Quintana, 2005; Parra, 1999):

1. **Inguru itxia:** zentroan bertan egiten diren horiek dira.
2. **Inguru irekia:** naturan burutzen direnak dira, eta potentzia hezitzaile maximoa lortu daiteke.
3. **Inguru mistoa:** aurreko bi aukeren konbinazioa da.
4. **Ordezko inguru hurbila:** hiriaren edo zentro urbanoaren zonalde berdeetan egiten direnak.
5. **Ordezko inguru urruna:** hiritik kanpo egiten direnak, hala nola, kanpamentuak.

Ondorio bezala, esan daiteke, natur jarduerak, era aproposan prestatuz eta aurrera eramanez gero, tresna oso boteretsuak izan daitezkeela ikaslearen garapen integralean laguntzeko eta balore garrantzitsu batzuk transmititzeko. Aztertu den bezala, askotariko natur jarduerak daude, baina lan honetan orientazio lasterketetan zentratuko gara.

3.4. ORIENTAZIO LASTERKETAK. ZER DIRA?

Orientazio lasterketei buruz hitz egin baino lehen, orientazioa bera zer den azaltzea ezinbestekoa da. Hiztegia kontsultatuz gero, orientazioa, puntu kardinal jakin batekiko posizioa edo norabidea da. Hala, orientazioaren bitartez, orientatzearen akzioa burutu daiteke (Real Academia Española, s.f., 2.definizioa). Azken finean, norbere buruaren kokalekua identifikatzea eta beste leku batzuetara ailegatzen jakitean datza (Miguel, 2001). Arribasek 2012an zioen bezala, orientatzeko, inguruan dauden elementuak erreferentzia bezala hartu behar dira, ondoren, espazio horretan zehar mugitzeko eta helburura ailegatzeko.

Orientazio lasterketa, Espainiako Orientazio Federazioak dioen bezala, gaitasun fisikoak eta intelektualak eskatzen dituen jarduera fisikoa edo kirola da. Espazioan zehar era logiko batean desplazatzea eskatzen duen jarduera denez, orientazio lasterketei “pentsarazteko kirola edo jarduera” deitu izan zaie, eta horren ondorioz, eskoletan inplementatzeko interes handia sortu zuen (McNeill et al., 2006). Beraz, orientazio lasterketa, laburbilduz, ingurune ireki batean korrika egitea eta pentsatzea konbinatzen duen jarduera bat da. Parte hartzaileak, aldi berean, natura deskubritzen eta proposatu zaion erronka gainditzen du, leku ezagun eta ezezagunetara mugituz, betiere mapa, pista edota iparrorratz baten bitartez lagunduta (Hernandez, 2005).

Espazio ezberdinetan eta aldagarrietan garatzen den lasterketa indibiduala da, zeinek ibilbide espezifiko bat duen eta parte hartzaileak iparrorratz eta mapa baten bidez osatu behar duen. Ibilbide hori era egokian bete ahal izateko, mapa horretan hainbat sinbolo agertuko dira, eta ibilbidean bertan, beraz, balizak. Ibilbidea azkarren egiten duen orientatzaileak irabazten du lasterketa.

Orientazioaren kirol ikuspegiak sorrera militarra dauka, Suediako armadan 1890.urtean gutxi gorabehera. Enest Killander izeneko kapitaina, mapen eta iparrorratza erabiliz, bere soldaduentzako entrenamendu metodo ezin hobea zela konturatu zen. Horien bitartez, espazio ezberdinetan (basoa, zelaia, ...) era efektiboagoan mugitzeko

gaitasuna garatzea lortu zuten eta, gainera, erabaki-hartzea bezalako trebetasun psikologikoak hobetzen ziren. Era azkar batean kirol izaera hartzen joan zen eta 1897.urtean lehendabiziko lehiaketa burutu zen Tjalve izeneko klub suediarren eskutik. Pixkanaka, XX. mendean zehar, beste kirol asko bezala, Federazio Internazional (1961) baten bitartez erregulatzeko prozesua jarraitu izan zuen. 1972. urtera arte ez zen Espainiara heldu eta, gaur egun, Euskadik ere badu bere federazio propioa (Federación Española de Orientación [FEDO]).

Gaur egun, bost modalitate nagusi daude orientazio munduan:

- 1) **Oinezko orientazioa.** Basoetan eta, orokorrean, kalitate handiko espazio naturaletan garatzen den orientazio lasterketa. Distantzia motz, ertainak eta luzeak egin daitezke (12'-30'-1h15'). Rogaine deituriko modalitateko lehiaketak, taldeka burutzen diren horiek, 24 orduetara arte luzatu ahal dira eta, beraz, bai eguna eta baita gaua ere sartzen dira jokoan. Arauei dagokionez, ibilbideak, batzuetan, zentzu zehatz bat dauka, eta beste batzuetan, aldiz, librea.
- 2) **Mendi bizikletako orientazioa.** Oinezko orientazioaren berdina da, baina bizikleta baten gainean gauzatzen da. Beraz, parte hartzaileek azkarrago pentsatu, erabaki eta jardun behar dute.
- 3) **Abentura Raid orientazioa.** Modalitaterik zailena dugu hau. Izan ere, taldea osatzen duten hiru orientatzaileek zenbait kirol edo diziplina ezberdin dominatu behar dituzte. Mapa baten bitartez diziplina batetik bestera pasatzen joaten dira proba luze hau bukatu arte. Honelako kirolak barne hartzen ditu: eskalada, txirrindularitza, kayak, ekitazioa eta abar.
- 4) **Eski orientazioa.** Oinezkoa eta mendi bizikletako lasterketak bezalakoa baina eskiekin eta elurrarekin garatzen da. Hortaz, fondoko eskiko pistetan egin ohi da.
- 5) **Trail orientazioa.** Orientazio lasterketen modalitate paralinpikoa da, eta espazioaren eta maparen interpretazioa eskatzen duen modalitatea da. Orientatzaileak, mapan marraztutako sinboloa dagokion balizaren sinboloarekin erlazionatu behar du. Erabakia hartzean, aukeratutakoa erregistratu eta ibilbidearekin jarraitu behar du.

3.5. ORIENTAZIOA LHko ESKOLETAN BARNERATUZ

1942an, Suedian, orientazioa eskoletako irakasgai bezala barneratu zen. Gaur egun, Europako herrialde gehienetan, era batean ala bestean LHko eta DBHko irakaskuntzan sartu izan da, HFren barnean zehatz-mehatz.

Orientazio lasterketak hezkuntzan aplikatzeko zenbait motibo badaude. Espezifikoki, ingurune naturaletan arituz gero, orientatzeko gaitasuna nahitaezkoa da ez galtzeko eta segurtasuna bermatzeko. Kirol modalitate ezberdinetan ere oso erabilgarria bilakatzen da (txirrindularitza, kanoa, eski, ...). Zentzu orokorrean ere garrantzitsua bilakatu daiteke orientazioa, hala nola, leku berrietan, oporraldietan, eguneroko bizitzan, ... (Aguado et al., 1989; Fraguela & Varela, 2016). Orientatzeko gaitasuna izanez gero, jarduera edozein dela ere, disfrutatzeko aukerek gora egingo dute.

Orientazio jarduerak, eskaintzen dituzten onura eta efektuei esker, senderismoarekin batera, natur jarduera erabilienak dira eskoletan (García et al., 2005; Granero et al., 2010; Saez, 2008). HFn modalitate kutunenetakoa da arrazoi jakin batzuei esker. Burutzeko erraza eta ekonomikoa da, lehiakortasunik gabekoa bihur dezake irakasleak, ikasle askorentzat ezezaguna denez, motibagarria eta interesgarria da eta, ikasleen aurretiko ezagutza teoriko edota praktiko handirik ez da behar (Rabadan, 2008). Gainera, balio hezitzaile altua dauka, ingurune naturalera gerturatzeko aukera ematen du, eta zeharkako eduki asko landu daitezke (Arribas, 2008; Casado, 2010). Hala, umeen behar asko asetzea lortzen da, hau da, sozializatzea, mugitzea, komunikatzea, autoestima, konfiantza (Robles, 2008). Horrez gain, natur jarduera oro bezala, diziplinartekotasuna baimentzen du, jarduera sorta handia prestatu daitekeelarik (Escaravajal, 2017).

LHko beste zenbait irakasgaien edukiak eta konpetentzia espezifikoak landu daitezke. Hala nola, maparen eta iparrorrazaren bitartez, matematiketako graduak, eskalak, neurriak, zenbakikuntza garatu daitezke. Horrez gain, plastikan protagonismoa izan ohi duten errepresentazio grafikoak, material ezberdinen diseinua eta irudien interpretazioa barne hartu dezake orientazio jarduera batek (Querol, 2003). Hizkuntza, ingurune heziketa, osasuna, hezkidetzeta, berdintasuna, ... ere lantzeko oso jarduera aproposak dira (Valero et al., 2010).

Hiru maila nagusi jarraituz irakatsi daiteke orientatzen (Gómez-Encinas, 1996):

1. **Hastapena.** Ludikotasunagatik eta botere hezitzailearengatik ezaugarritzen den maila da.

2. **Espezializazioa.** Maila hau ere oso ludikoa da eta deskubrimendu gidatuaren bitartez garatu daiteke. Batez ere, eskolako ingurune gertuan landu behar da eta mapa eta iparrorratza bezalako tresnak erabiltzen irakatsi behar da.
3. **Perfekzionamendua.** Orientazio lasterketen espezifikotasun handiena duen maila da. Autonomia eta erabaki hartzean gaitasun altua behar da, tresnak bikain erabiltzen jakiteaz gain.

LHn lehenengo maila, eta bigarren mailaren zati bat lantzea aproposa izan daiteke, betiere taldearen ezaugarriak kontuan hartuta. Adinaren arabera egokitu behar dira jarduerak aurretik azpimarratutako onura didaktikoak ez galtzeko. Orientazio lasterketa, gaur egun, kirol bat da, baina eskoletan aisialdi eta heziketa izaerako orientazioa aplikatzea da interesgarriena (Martinez, 2007).

Material, espazio mota eta arauen araberako progresio logiko bat jarraitu behar da. Aldagai guzti horiek ikasleen adinaren arabera aldatzen joatea ezinbestekoa da, hauen gaitasun espazio-tenporala ere aldatzen baitoa. Taldearen arabera egokitzapenak egin behar dira, jarduera motibagarria eta konfiantzaz beterikoa aurrera eramán ahal izateko eta, azken finean, ikaskuntza giro apropos bat izateko. Modu honetan bakarrik lortuko dira bilatzen diren onura didaktikoak (Martinez, 2007).

Espazioa, umeentzat oso aspektu abstraktua da, beren gaitasun kognitiboak ez baitaude garatuta. Hala, Piagetek azaldutako gazteen eboluzio kognitiboa kontuan hartzea garrantzitsua bilakatzen da orientazio lasterketak lantzerako orduan. Urteetan zehar garatuz doazen hiru espazio-pertzepzio buruan izan behar ditu HFko irakasleak, horren arabera bere ikasleen gaitasunak sumatu ahal baititu. Hauek dira hiru espazio horiek (Piaget, 1981):

- 1) **Espazio topologikoa.** 0-6 urteen artean garatzen da. Zentzuen garapen xumea dela eta, umeak ez ditu bere inguruko elementu guztiak hautematen.
- 2) **Pertzepzio espazioa.** 6 eta 10 urteen artean ematen da eta aurreko urteetan bizitako espazioak memorizatzen doa. Umeak bere ingurua behatu eta konparatzen du.
- 3) **Espazio euklidiarra.** Normalean, 10 urtetatik aurrera garatzen den espazio-pertzepzioa da, eta abstrakzioa da protagonista. Harreman espazialak koordinatu sistema bat bezala hautematen hasten da, gure kasuan, mapen interpretazioarekin.

Espazioaren aukeraketa jardueraren aurretik ondo planifikatuta izatea garrantzitsua da. Ikasleentzat, jarduera ez da zailegia ezta errazegia izan behar, eta irakasleak espazio motaren arabera zailtasun hori erregulatu dezake. Taldearen ezaugarriak eta gaitasunak kontuan hartuta, inguru sinpleenetatik eta ezagunetatik hasi, eta inguru konplexu eta ezezagunetan amaitu beharko luke progresio egoki batek. Hau da, eskolatik naturarako bidai kontrolatu bat jarraitu behar da. Autore gehienek honako progresioa proposatzen dute (Casado, 2010; Granero & Baena, 2011; Martinez, 2007):

1. **Ikastetxean bertan egindako orientazio jarduerak:** ikasgelan, gimnasioan eta patioan. Posibilitate askotako ariketak burutu daitezke, zailtasun eta helburu ezberdinekin.
2. **Ikastetxearen inguruetan egindako orientazio jarduerak:** polikiroldegian edota kalean.
3. **Ingurune naturaletan egindako orientazio jarduerak:** parkean, basoan, eta abar.

Julian eta Pinosek (2013), sailkapen zehaztuagoa egin zuten: ikasgelatik hasita eta parkea erdi ezagunetan amaiturik. Tartean, pixkanaka eta ordenan, ikastetxearen barrualdea, patio mugatua, patio osoa, gertuko oinezkoen kaleak, gertuko parke mugatuak eta osoak erabiltzea proposatzen dute.

Baenak eta Granerok (2014) diotenez, joera espazio ezagun eta itxietatik, hau da, ziurgabetasun maila gutxienetik, pixkanaka inguru ezezagun, ireki eta, beraz, ziurgabetasun handiagokoetara mugitzea izan behar da. Zenbat eta ziurgabetasun handiagoa izan inguruak, orduan eta zailtasun handiagoa suposatuko die ikasleei, eta ondorioz, autonomia maila altuagoa erakutsi beharko dute. Fraguela eta Varelaren aburuz (2016), ingurune aldaketa bat gertatzean, eskolako kiroldegitik patiora esate baterako, eduki berriak ez dira aurkeztu behar. Izan ere, informazio kantitate handiegia izan daiteke ikasleentzat, eta lehendabizi, espazio berri hori ondo ezagutzea garrantzitsuagoa da.

Orientatzen ikasten hasteko, leku aproposena eskola bera da. Izan ere, ikasleak ezagutzen duten espazio bat da eta, beraz, galtzearen arriskua ezabatzen da. Gainera, irakasleak edozein egoeratan lagundu ahal izateko eta ikaskuntza prozesua behatzeko kontrolpean eta begi bistan ditu. Horrez gain, eskola ordutegian ez du arazorik eragiten, soilik HFko irakasgaiaren ordua betetzen baita (Miguel, 2008, in Barca, 2017).

Espazioaz gain, taldearen kontrola jardueraren zailtasuna graduatzeko aldagai erabilgarria da. Alde batetik, irakasleak talde osoa edo talde txikiak begi bistan izan

ditzake. Beste aldetik, beste irakasle gehiagoren presentzia eta laguntzak ere eragina izan dezake. Aldagai hauek, batez ere, ikasleen autonomia mailan izango dute eragina, eta umeen izaeraren, adinaren eta gaitasunen arabera moldatuko da (Fraguela & Varela, 2016).

Orientazio lasterketaren ibilbidearen diseinuak ere jardueraren zailtasunean eragina badauka. Hiru ibilbide mota nagusitzen dira. Batetik, izar modukoa daukagu, zeinetan “pista” bakoitzaren amaieran hasierako lekura etorri eta irakaslearekin hitz egin behar den jarraitu ahal izateko. Bestetik, froga lineala ageri da, pista guztiak jarraian burutu behar direlarik. Azkenik, ibilbide mistoa dago, aurreko biak nahasten dituen hain zuzen ere. Ibilbidea zenbat eta linealago izan, orduan eta ikasleen autonomia eta askatasun maila altuagoa egongo da. Ibilbidea izar modukoa bada, aldiz, irakaslearen kontrola nagusituko da. Lehen esan bezala, ikasleen ezaugarrien arabera graduatuko da aldagaia (Fraguela eta Varela, 2016).

HFko jarduera orotan bezala, irakasleak, paper aktibo eta, zenbaitetan, parte hartzailea izan behar du. Bere ikasleak motibatatu behar ditu, eta talde lanaren bitartez eta arauak errespetatuz proposatu zaien orientazio jarduera aurrera ateratzen lagundu behar ditu (Querol & Marco, 1998).

Orientazio lasterketen eta jardueren bitartez, orokorrean, natur jarduera oroekin bezalako onurak lortu daitezke. Gomez-Encinas-ek et al., (1996), hiru mailatan ezberdintzen dituzte efektu horiek. Lehendabizi, talde lana, parte hartzea, errespetua eta motibazioa erdietsiko dira. Bigarren maila batean, jarraian, naturarekiko errespetua eta beren mugen gaintzea lortzen hasiko dira. Azkenik, erabaki hartzea eta ardura garatuko dira. Horretaz gain, gaitasun kognitibo, sozial, motor, afektibo eta psikomotorren garapena lortzen da (Rabadan, 2008).

Zentzuen bitartez badakigu zein lekutan gauden, eta horrela, espazio horretatik mugitzeko gai gara. Ikusmena izaten da zentzurik garrantzitsuena eta begien bitartez jasotako informazioaren bitartez, egoera analizatu, ebaluatu eta ondorioak ateratzen dira. Ondorioa espazio jakinean zehar desplazatzea izango da. Beraz, bi pertzepzio ezberdindu behar dira: batetik, gure buruarekikoa, hau da, non gauden jakitea esaten digun hori (gorpuztasuna); eta bestetik, inguratzen gaituenarena (espazialitatea eta denborazkotasuna). Zenbat eta natur jarduera eta, kasu honetan, orientazio jolas, gehiago praktikatuz, orduan eta azkartasun handiagoarekin mugituko gara espazio ezagun eta ezezagunetan (Rodriguez, 2013).

Natur heziketa bezala, beste zenbait balore ere transmititzen dira jarduera hauen bidez, hala nola, biolentzia eza, hezkidetzeta, kooperazioa edota osasuna (Barderá, 2011; Granero & Baena, 2011; Rabadan, 2008).

LHn, lehenengo eta bigarren zikloko helburuak nahiko ezberdinak izango dira orientazio jarduerari dagokionez. Alde batetik, honako xedeak bilatuko dira lehendabiziko zikloan (LH1-LH3) (Hernandez, 2005): plano espazioaren errepresentazio bat bezala ulertzea; planoko eta espazio errealeko objektuak erlazionatzea eta interpretatzea; ibilbidea eta norabidea jarraitzea, mapa orientatzen jakitea, beren burua orientatzea; eta lagunekin kolaboratzea.

Beste aldetik, bigarren zikloan (LH4-LH6), aurreko ziklokoaz gain, beste zenbait jomuga bilatzen dira (Hernandez, 2005): espazio konplexuagoetan edota ezezagunetan orientatzen hastea; planteatzen den arazoa, egoera, erronkari soluzioa aurkitzea; erresistentzia eta abiadura garatzea; eta iparrorratza erabiltzen hastea.

Miguelek (2001), helburuen zerrendara emozioen kudeaketa gehitzen du, jarduerak era egokian aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa delarik. Frustrazioa, haserrea, motibazio galera ... sentimenduak maneiatzeko gaitasuna lantzea nahitaezkoa bilakatzen da adin gazteenetan.

LH bi ziklotan banatuz gero, eduki sailkapena ere egitea beharrezkoa da. Alde batetik, lehenengo zikloan (LH1-LH3), orientazioaren oinarriak lantzea ezinbestekoa izango da, eskolaren espazioa eta bere ingurune gertua erabiliz. Pista jolasak eta ikastetxetik gertuko orientazio jarduerak burutuko dira batik bat. Beste aldetik, bigarren zikloan (LH4-LH6), mapa konplexuagoak, eremu ezezagunagoak eta ibilbide zailagoak erabiliko dira (Fraguela & Varela, 2016).

Edukiekin erlazionatuta, orientazioaren oinarriko bi ezagupenak honakoak dira: mapa orientatzea eta mapako elementuak eta errealtatekoak erlazionatzea (Kronlund, 1991). Horietaz gain, Julian eta Pinosek (2011) orientatzen ikasteko zenbait funtsezko eduki zerrendatzen dituzte: mapa ezagutzea, ibilbidea jarraitzea, balizak identifikatzea eta aurrera jarraitzea, eta iparrorratzaren erabilera.

4. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia honakoa da: *orientazioa ardatz bezala hartuta, LHko ikasleentzako sekuentzia didaktiko bat diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzea da*. Horrez gain, beste helburu hauek ere aipatu behar ditut:

1. Natur jarduerak orokorrean deskribatzea.
2. Natur jarduerak hezkuntzarekin duten erlazioa aztertzea: curriculum, onurak, arriskuak eta mugak.
3. Natur jarduerak umeen heziketan izan dezaketen garrantzia arrazoitzea.
4. Orientazio lasterketak ezagutzea eta eskoletan inplementatzerakoan ematen dituzten aukerak analizatzea.

5. METODOA

5.1. TESTUINGURUA ETA PARTE HARTZAILEAK

Lan hau osatzeko, Gasteizko eskola batean proposamen didaktiko bat aurrera eramanez dut. Hiriazen hego-ekialdean kokatuta dagoen Errekabarri ikastetxean inplementatu dut hain zuzen ere. Salburua izeneko auzo berri eta gaztean aurki daiteke, eta publikoa eta euskalduna da.

Errekabarriko eskolaz kanpoko ekintzetan lan egiten dut, Multixiki edo Multikirol izenekoan zehatz-mehatz. LHko lehenengo mailako talde batekin egon naiz 2021-2022 ikasturte osoa, astero bi ordu osatuz (astearte eta ostegunetan ordu bana). Guztira 6-7 urteko 14 ume dira, zortzi mutil eta sei neska, eta ikasgela berdinekoak direla aipatu beharra daukat.

Multikirol-eko ekintzetan kirol ezberdinekin erlazionatutako jarduerak (eskubaloia, hockey, saskibaloia, atletismoa, ...), motrizitatea garatzeko jolasak (punteria, jaurtiketak, jauziak, akrobaziak, ...) eta bestelako jokoak (harrapaketa, ezkutaketa, eta abar) burutzen dira urte osoan zehar. Azken finean, HFren antza handia dauka, baina ikasle kopurua askoz baxuagoa da eta ez dago irakasle bat, monitore bat baizik.

Testuinguru honen barruan, ondorengo puntuak azaldu dudan sekuentzia didaktikoa inplementatzen saiatu naiz, zenbait helburu kontuan hartuz.

5.2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

5.2.1. HELBURUAK ETA EBALUAZIO DIDAKTIKOA

Sekuentzia didaktikoak hiru helburu nagusi ditu: planteatzen den erronkari soluzioa aurkitzea, taldean aritzea eta beren burua orientatzea. Horien barnean, zenbait azpi helburu ageri dira. Helburu horien arabera, ikasleen ebaluazioa gauzatzeko irizpideak izendatu dira (1.taula).

5.2.2. ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

Proposamen didaktiko honen bitartez, modu batera edo bestera, oinarrizko zehar-konpetentzia guztiak landu daitezke:

1. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia. Komunikazio digitalik ez da garatuko, baina hitzeko eta idatzizko komunikazio jariakor eta eraginkorrak egitea ezinbestekoa izango da ikasleentzat. Hitzik gabeko kodeak (irudiak eta sinboloak) ulertzea eta autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea bilatuko da.

2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. Jardueretan zehar aurkezten zaien informazioa interpretatuko eta ebaluatuko dute, eta horren arabera, erabakiak hartuko dituzte, pentsamendu kritikoa landuz. Gainera, sekuentzia didaktikoaren jarduera ezberdinetan ikasitakoa baliatu eta beste egoera batzuetara transferituko dituzte, baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa eginez.

3. Elkarbizitzarako konpetentzia. Adin honetan, garrantzi handiena duen zehar-konpetentzia dela esango nuke. Izan ere, ikasleek norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adierazten dituzte jardueran zehar, eta aldi berean, kideenak entzun, kontuan hartu eta errespetatu behar dituzte. Ildo beretik, taldean ikastea eta lan egitea eskatzen zaie, nor bere rola onartuz eta helburu jakin bat lortzeko lankidetzan arituz. Sortu daitezkeen gatazkak eta desadostasunak elkarriketaren bidez konpontzea garrantzitsua da, biolentziarik eta errespetu faltarik gabe.

4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia. Jarduera guztiak nik diseinatu ditut, baina hauen bukaeran, ikasleek, egindako ekintzak komentatzeko aukera dute eta hobetzeko proposamenak bota ditzakete.

5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia. Aurreko zehar-kompetentziekin erlazioaturik, jarduera hauek hitzezko hizkuntza, portaera soziala eta morala, eta emozioak autoerregulatzeko lagunduko diete ikasleei. Gainera, motibazioa eta gogoindarra kudeatzen ikasiko dute, erabaki egokiak hartzen lagunduz.

5.2.3. METODOLOGIA

Lan honetan proposatutako jarduerak burutzeko arazoetan oinarritutako ikaskuntza eta *learning by doing* izeneko metodologia bateratu ditut. Izan ere, ikasleei arazo edo erronka bat aurkeztuko zaie (pista batzuk emango zaizkie) eta beren kabuz soluzio bat aurkitu beharko dute. Hau da, protagonistak beraiek izango dira eta taldekideekin kooperatuz, beren akzioen eta lortutako esperientziaren bidez ikaskuntza bat jasoko dute.

Ume txikiak direla kontuan hartuta, monitoreak ikasleekiko izan behar duen kontrola nahiko handia da, ikasleen autonomia maila baxua mantenduz. Horregatik, saioak hasterako orduan ume guztiak biribilean eserita izatea eta azalpen lasai, sinple eta garbi bat ematea garrantzitsua da, beren interesa deituz. 14 ikasle izanik, lau edo bost pertsonetako hiru talde egitea iruditzen zait aproposena. Taldeko bakoitzean ume gehiago egongo balira, kide bakoitzaren protagonismoa eta parte hartzea urriagoa izango litzateke, jarduera aspergarria bilakatuz. Aldiz, bikoteak edo hirukoteak sortuz gero, hauen parte hartzea altua izango litzateke, baina autonomia maila handiegia izango luketela uste dut, eta monitore bakar batentzat kontrolatzeko talde gehiegi egongo lirateke.

Behin jarduera hasita, ikasleen autonomia erregulatzeko lau aldagaietan jarri behar da arreta:

1. **Espazioa:** Jarduerak Errekabarriko zentroaren barruan garatuko direnez, umeen autonomia ez da altuegia izango, baina 1.mailakoak direla kontuan hartuta, aproposena dela esango nuke. Gimnasioan eta patioan burutuko direnez, ezagutzen dituzten eremuak eta lekuak dira.

1.taula. Sekuentzia didaktikoaren helburu, azpi-helburu eta ebaluazio irizpideak

HELBURU NAGUSIA		AZPI HELBURUA		EBALUAZIO IRIZPIDEA	
1	PLANTEATZEN DEN EGOERA EDO ERRONKARI SOLUZIOA AURKITZEA	1.1	Jolasaren argibideak eta funtzionamendua ulertzea	1.1	Emandako argibideak eta jolasaren funtzionamendua ulertu du
		1.2	Ibilbidea eta norabidea jarraitzea	1.2	Ibilbidea jarraitzeko gai izan da
		1.3	Emandako pistak interpretatzea eta ulertzea	1.3	Emandako pistak ulertu eta ondorioztatu ditu
		1.4	Zirkuitua amaitzea	1.4	Erronkari soluzioa aurkitu dio
2	JOKOAN TALDEAN ARITZEA	2.1	Aktiboki parte hartzea	2.1	Aktiboki parte hartu du
		2.2	Taldekideekin errespetuarekin komunikatuz kolaboratzea	2.2	Errespetuz kolaboratu du taldekideekin
		2.3	Gatazkaren bat sortuz gero, elkarriketaren bidez konpontzea	2.3	Gatazka edo desadostasunen bat sortu bada, hizketa dela medio konpondu du
3	BEREN BURUA ORIENTATZEA	3.1	Espazio ezagunetan orientatzea eta pistak aurkitzea	3.1	Espazioan zehar orientatu eta pistak aurkitu ditu
		3.2	Planoa espazioaren errepresentazio bat bezala ulertzea	3.2	Mapa espazio errealaren errepresentazio bat dela ulertu du
		3.3	Planoko eta espazio errealeko objektuak erlazionatzea eta identifikatzea	3.3	Mapako eta espazio errealeko objektuak erlazionatu eta identifikatu ditu

2. **Ibilbide mota:** Izar motatako ibilbidea izango da, hau da, taldeak etengabe monitorearengana bueltatuko dira hurrengo pista edo planteatzen zaien arazoa eskuratzeko. Modu honetan, talde bakoitzak egiten ari den lanaren zuzentasuna kontrola daiteke.
3. **Ikus kontrola:** Jarduerak espazio mugatuetan eta txikietan egingo direnez, monitoreak talde guztiak begi bistan izango ditu, bai liskarrak kudeatzeko, eta baita edozein laguntza eman ahal izateko.
4. **Helduaren presentzia:** Ikasleei autonomia handiena emango dien aldagaia da. Bi monitore egongo dira ikasleekin jarduerak gauzatzen diren bitartean, baina printzipioz, ez dira ibilbidean zehar ikasleekin joango erronkak osatzeko. Umeek emandako pista interpretatzen jasoko dute laguntza.

5.2.4. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Lan honetan aurkezten dena lau saioz osatutako proposamen bat da. Bata bestearen atzean garatuko dira, hau da, esku-hartzearen saioak lau egun jarraian gauzatuko dira, zehazki bi astearte eta bi ostegunetan. Ezarritako helburuak eta xede-taldearen ezaugarriak kontuan harturik, eskolako testuinguruan pista eta orientazio jolasak burutuko dira, alegia, ikastetxeko gimnasioan eta jolastokian.

Ordu bateko saioak izango dira eta saio bakoitzaren deskribapen sakona eranskinetan ageri da (1.eranskinetik – 4.eranskinera). Taula baten bidez egun bakoitzean zein espazio erabiliko den, helburuak zeintzuk izango diren eta jardueren garapena nolakoa izango den azaltzen da. Lau saioek estruktura nahiko antzekoa daukate, izan ere, laurak prestaketa, azalpen, garapen eta lasaitasunera bueltatzeko faseez osatuta daude.

Sekuentzia didaktikoan erabiliko den espazioaren eta materialaren deskribapena hurrengo puntuan ageri da. Ondoren, proposamen didaktikoaren deskribapenarekin amaitzeko, saioak martxan jarri eta geroko ebaluazioa burutzeko behar diren tresnak deskribatzen dira.

5.3. ESPAZIOA ETA MATERIALA

Proposamen didaktiko honetan espazioa garrantzi handiena duen aspektua da. Aurrera eraman ahal izateko, Errekabarri ikastetxeko gimnasioa eta patioa erabili izan dira. Gimnasioa 15x25m ingurukoa da eta barnean gora egiteko eskailerak, koltxoneta handi bat, kanastak eta bestelako materialez (koltxoneta txikiak, baloiak, erraketak, ...) jositako armairuak daude. Patioa, ikastetxe askorekin konparatuz gero, oso ezberdina da. Ingurune naturalak islatu nahi dituzten eremu ugari ageri dira: belardiak, hareazko laukiak, zuhaixkez eta tutuez egindako tunelak, eta abar. Abilitate ezberdinak (txirrista, gora egin, oreka, jauziak,...) trebatzeko eremuak eta eraikuntzak ere badaude, patio osoari aberastasun handia emanez. Hormigoizko eremu irekiak eta futbol zelai aterpedun bat ere ageri direla aipatzekoa da.

Materialari dagokionez, bere presentzia ezinbestekoa da jarduerak aurrera eraman ahal izateko, baina ez du konplexutasun handirik. Alde batetik, gimnasioko eta patioako materialez eta eraikuntzez baliatu gaitzke. Beste aldetik, espazioak berak eskaintzen digunaz gain, orientazio edo pista jolaserako beharrezkoak ditugun materialak daude (5.eranskina):

- **Irudiak pista bezala.** Irudi bakoitzak, gimnasioaren edo patioaren eremu zehatz batera eraman beharko lituzke taldeak, non hurrengo pista lortzeko puzzle pieza bat aurkituko duten.
- Irudiak ordez, **idatzitako pistak** ere erabiliko dira. Hau da, talde bakoitzari hurrengo arazoa irudi baten bidez aurkeztu ordez, monitoreak, ahoz pista bat emango die hurrengo pieza aurkitu ahal izateko.
- Pista bakoitzak eramaten duen **pieza, igela edo zakutxo**a. Ikasleek pieza egokia aurkitu dutela ziurtatzeko, monitoreak paper batean izango du apuntaturik pista bakoitzari dagokion pieza.
- **Gimnasioaren eta patioaren mapak** material gisa ere baliatuko dira zenbait saiotan.

5.4. EBALUAZIOA

Saio guztietan hurrengo taula erabiliko da hainbat irizpide ebaluatzeko (2.taula). Begi bistaz eta behaketaren bidez saio bakoitzaren amaieran beteko da, eta kasu honetan,

ikasle bakoitza indibiduo bat bezala hartuko da. Hein handi batean, umeen jarrera eta jolasaren ulermena ebaluatuko da lehendabiziko tresna honen bitartez. Saio bakoitzean horrelako txantiloia bat erabiliko denez, ikasle bakoitzaren eboluzioa ikusiko da sekuentzia didaktikoaren amaieran.

Hurrengo taula ere saio guztietan erabiliko da (3.taula), talde bakoitzak (edozein dela ere talde kopurua), pistak interpretatzerako orduan erakutsi duen ulermen eta autonomia maila bistaratzen baitu.

Bestalde, lehenengo eta bigarren saioan, puzzle piezak gimnasio eta patioetik bilatu behar dituztenez, horiek aurkitu dituzten ala ez adierazten duen txarteltxo bat izatea komenigarria izango da zenbait irizpide ebaluatu ahal izateko (4.taula). Taula honen bitartez, hitza deszifratzea lortu baduten ala ez ere adieraziko da. Hirugarren eta laugarren saioan kolorezko igel eta zakutxoan bila ibili behar direnez, taula mota berdinez baliatuko gara, hitzik deszifratu behar ez dutelarik. Taula honen bitartez taldeek erronka gainditu duten ala ez, ibilbidea jarraitzeko gai izan diren eta espazioan zehar orientatu diren ala ez jakingo dugu.

Azkenik, bigarren eta laugarren saioan erabilitako mapak ebaluazio tresna bezala ere balioko digute, bertan ikasleek piezen kokalekua marraztu beharko baitute (1.irudia). Horren bitartez, mapa espazio errearen errepresentazio bat dela ulertu duten ikusiko dugu.

2.taula. Jokabidearen ebaluazio txantiloia. 1: Oso gutxi; 2: Gutxi; 3: Nahiko; 4: Oso ondo; 5: Bikain


IKASLEA	JOLASAREN ULERMENA (1-5)	PARTE HARTZE AKTIBOA (1-5)	KOLABORAZIOA (1-5)	GATAZKEN KUDEAKETA (1-5)
Ikaslea 1				
Ikaslea 2				
...				

3.taula. Pisten ulermen ebaluazioa

TALDEA	Laguntza etengabe eskatu dute	Laguntza pixka bat jaso dute	Laguntzarik gabe ibili dira
1.taldea			
2.taldea			
3.taldea			

4.taula. Kontrol txartela

PIEZAK / IGELAK eta ZAKUTXOAK							
TALDEA	1	2	3	4	5	6	HITZA
1.taldea							
2.taldea							
...							



1.irudia. Patioko mapa

6. EGUNEROKOA

Hurrengo paragrafoetan, proposamen didaktikoa osatzen duten lau saioetan gertatutakoa banan-banan deskribatuko dut. Saio bakoitzaren ebaluazioa 6, 7 eta 8. eranskinetan aurkituko dituzu.

1. saioa (Maiatzak 10):

Sekuentzia didaktiko honen lehenengo pista-jolasean talde guztiek erronka gainditzea lortu dute. Hau da, talde guztiek pieza guztiak bildu eta "ERREKA" hitza osatzea erdietsi dute. Esan behar da guztiek ez dutela aldi berean bukatu, batzuek zailtasun gehiago izan baitituzte piezak aurkitzerako orduan. Gutxi gorabehera, lehenengo taldeak 15 minutu inguru behar izan ditu jolas osoa betetzeko, bigarrenak 17 minutu eta azkenengoak 20.

Jolasa hasi baino lehen, ikasleak interes handiarekin, urduri xamar eta gogotsu egon dira, urte osoan ez baitugu horrelako jarduerarik egin. Hortaz, jokoa azaltzerako orduan guztiak adi egotea kostata lortu da. Talde oso mugitua, ezinegonekoa eta urduria da, baina jokoak nahiko erraz ulertzen dituzte. Beraz, alde horretatik ez da arazo handirik egon.

Pistak, kasu honetan irudiak, ondo ulertu eta identifikatu dira eta, orokorrean, azkar jakin izan dute gimnasioaren zein tokitara joan behar ziren. Hala ere, inferentzia sakonago bat egitea eskatzen zuten irudi gutxi batzuk bazeuden, ikasleengan zailtasun handiagoak sortaraziz. Adibidez, irudi batean bonbillak agertzen ziren. Hori ikusita, umeez sabaiko argietara begiratzen hasi dira eta ezin zirela ailegatu etorri dira niregana. Hau da, ez dira bere kabuz gai izan argien etengailuak bilatzeko, nik eman behar izan baitiet beste pistaren bat hortik bila zezaten. Beste talde batzuek, aldiz, irudiak interpretatzeko gaitasun handiagoa erakutsi dute. Esate baterako, irudian pertsona bat arrokan eskalatzen ikusi bezain laster, pieza gimnasioko horma-barretan bilatu behar zutela argi izan dute.

Monitoreak irudiak erakusterako orduan, talde guztietan bazegoen ikasleren bat protagonismo gehiegi nahi zuena, erdian jarriz, irudia eskuetatik kenduz, kideei ez erakutsiz, eta abar. Hortaz, zenbait taldekideen parte hartzea zerbait murriztuagoa izan da irudiak deszifratzerako orduan. Aldiz, behin ze eremutan bilatu behar duten jakin izan dutenean, talde bezala ondo kolaboratu dute pieza aurkitzeko helburuarekin.

Jarduera aurrera zihoan heinean, ikasle gutxi batzuk gero eta gutxiago parte hartu eta kolaboratu dute bere taldekideekin. Gimnasio barruan hainbeste estimulu egonik eta oraindik ume hain txikiak izanik, nahiko azkar galdu dute kontzentrazioa eta berehala aspertu dira. Amaieran, piezak elkartzeko eta hitz sekretua azalerazteko elkarrekin lan egin dute eta talde orok oso azkar deszifratu dute "ERREKA" hitza. Saioari amaiera ematen hasteko, taldean azkar zer iruditu zaien egindako jarduera eta ze nolako sentrazioak dituzten komentatu dugu. Asko gustatu izan zaie eta zenbaitek errazegia izan dela komentatu dute. Amaitzeko, gimnasioko planoak erakutsi zaie eta bertan agertzen diren elementuak (irteerak, armairuak, horma-barrak, bainugela, ...) errealitatearekin konparatu dira. Talde batek jardueran burututako ibilbidea marraztu dut adibide bezala. Ikasleek planoak eta ibilbidea nahiko ondo ulertu dute eta hurrengo saioan demostratu da.

2.saioa (Maiatzak 12):


Aurreneko saioan bezala, talde guztiek planteatutako erronkari soluzioa aurkitu diote. Jarduera oso antzekoa izanik (ezberdintasun bakarra patioan egin dela izan da), martxan jartzeko denbora askoz gutxiago izan da. Talde eta ikasle gehienek autonomia handiarekin aritu dira, monitoreen laguntza gutxitan eskatuz eta beren kabuz jolastuz. Hala ere, lehendabiziko saioan bezala, talde batek azkenengoak baino 5-10 minutu inguru lehenago amaitu du.

Irudiak, orokorrean ondo ulertu dira, baina batzuetan pista gehiago eman behar izan zaie, bi arrazoiengatik: alde batetik, patioa hain handia izanik zaila izan zitekeelako pieza aurkitzea, eta beste aldetik, irudia interpretatzeko arazoak zirela eta. Hala ere, eremu posibleak identifikatzeko erraztasuna erakutsi izan dute pista askorekin.


Ikasle batek izan ezik, haserretuta ibili dela saio osoan zehar, denek parte hartze handia eta kolaborazio bikainarekin ibili dira pista jolasean zehar. Aurreko saioan ez bezala, irudia kide guztiek behatzeko aukera izan dute eta ondo kooperatuz piezak bilatu dituzte. Ondoren, talde guztiak piezak elkartzeko eta hitz sekretua osatzeko momentuan ere guztien artean koordinatu dira, "BARRI" hitza ateraz.

Jarraian, ikastetxeko planoak aurkeztu zaie eta aurrekoan bezala deskribatu da. Hala, pieza bakoitza non aurkitu duten gogoratzea eta toki horiek ordenan (zenbakiak jarriz 1etik 5era) mapan kokatzea eskatu zaie ikasleei. Saioaren azken zati honetan zenbait ikaslek interesa galdu eta beren kabuz jolastera alde egin dute, baina gehiengoek mapa osatzen gelditu dira. Orokorrean, mapa nahiko azkar ulertu dute eta irudietan ikusi daitekeen bezala, zenbakiak ordena eta kokaleku egokian markatu dituzte. Noski,


nire laguntza jaso behar izan dute hiru taldeek momenturen batean, zailtasunak baitzituzten bi aspektutan batez ere: mapa orientatzerako orduan eta beren burua planoan non zegoen zalantza.



2.irudia. 1.taldearen mapa



3.irudia. 2.taldearen mapa



4.irudia. 3.taldearen mapa

3.saioa (Maiatzak 17):

Hirugarren saioan ikasleek interes murriztuagoa erakutsi eta transmititu digute orientazioaren inguruko jolasekin jarraituko genuela esandakoan. Horren aurrean, joko motza izango dela eta nahi zuten hirukoteak sortu ahal dituztela esan zaie, motibazioa eta interesa handitzearren. Horrela, bide batez, parte hartzea handiago egin daiteke ikasle lotsatienekin. Hala ere, zenbait umek desinteres handia erakutsi eta jolasetik kanpo geratu direla esan behar da

Jolasaren azalpena, gaurkoan ere, ezberdintasun batzuk izan arren (ahozko pistak eta ez irudiak, eta igelek edo zakutxoaren bilaketa), erraz ulertu dute guztiek. Emandako pista ia guztiak ondo interpretatzeko gaitasuna izan dute eta segidan abiatu dira toki egokira. Hala ere, igel edo zakuren bat aurkitzeko laguntza behar izan dutela esan behar da, baina autonomia handia erakutsi dute eta jolaseko elementu guztiak bildu dituzte talde guztiek, parte hartu ez duten horiek osatutakoa izan ezik. Gaurkoan,

denbora kantitate oso antzekoa erabili dute lau taldeek, bakarrik hiru pista eman baitzaizkie, joko laburragoa izanik.

Parte hartu duten horiek talde lan oso egokiarekin aritu dira, bai pista deszifratzerakoan eta baita piezak bilatzerako orduan. Batzuek hainbeste gogo zituzten, beste talde batzuei kantatutako pistaren erantzuna nahi gabe esan izan dietela. Esatea ere, bi ikasleren arteko gatazka bat gertatu dela, eta elkarrizketa apropos eta lasai baten bitartez konpondu ordez, hitz txarrekin eta "biolentziarekin" jarraitu dute monitoreok bakea jarri arte. Behin lasaituta eta hitz eginda, jolasa eta saioa normaltasunez jarraitzea lortu da.

4.saioa:

Laugarren eta azkeneko saioa ez da aurrera eraman izan, ikasle gehiengoan interesa asko jaitsi baitzen aurreko saioan. Beraz, proposamen bat bezala geratuko da lan honetan. Hala ere, nire ustez, aurreko saioetan ateratako antzeko emaitzak izango genituen. Hasteko, patioko planoak ezaguna izango litzateke jadanik beraiantzat eta hura interpretatzeko zailtasun handirik ez luke egon behar ikasle gehienek aldetik. Jolasaren funtzionamendua ere erraz ulertuko lukete. Ondoren, planoaren elementuak ondo identifikatu arren, monitoreoi laguntza aldi askotan eskatuko zigitela uste dut, beren burua kokatzeko eta ezkutatutako objektuaren kokaleku zehatza ondorioztatzeke zailtasunak izango zituztela uste baitut. Hala ere, denbora gehiago behar izan arren, monitoreen laguntzari esker eta talde lanaren bidez, hiru taldeek sei igel eta zakutxoak eskuratuko zituztela esango nuke.

Zoritxarrez, posible da ikasleren batek hasieratik edo jokoan zehar, aurreko egunetan bezala, interesa galtzea eta jolasteari uztea. Hala eta guztiz ere, gehiengoan parte hartzea handia izatea espero da eta erronka gainditzeko motibazioa altua izatea.

7. ONDORIOAK

Jarraian, ikuspuntu ezberdinetatik, martxan jarritako proposamen didaktikoaren balorazio bat burutuko dut. Arufe et al.-ek 2012an esan zuten bezala, ikasleentzat jolas motibagarriak izan dira, egunero gauzatzen dituzten jokoetatik irten baitira eta gainera, aldi berean gauza berriak (planoak) ikasi eta disfrutatu dute. Learning by doing eta arazoetan oinarritutako ikasketa izeneko metodologiaren arteko nahasketa bat gauzatu

da saioetan (Dalmau et al., 2016). Abentura pedagogiaren izaera ere izan du sekuentziak (Caballero, 2012), izan ere, ikasleek, kolaborazio sinple baten bidez erronka batzuk gainditu behar izan dituzte. Beraz, hastapeneko orientazio bat garatu dela esan daiteke, batez ere ludikotasuna eta baloreen transmisioa bilatu baita (Gomez-Encinas, 1996).

Parte hartzaileen adina kontuan hartuta, orientazio lasterketa huts bat ez da aurrera eramanez, baina egokitzapen batzuk eginez gero LHko edozein ziklotan orientazioaren inguruko jarduerak egin daitezkeela argi geratu da (Contreras et al, 2005). Ingurune natural batera ezin izan garenaz joan, ikastetxeko jolastokiak eskaintzen zigun espazioa aprobetxatu dugu eta, egia esan, oso naturalizatu dagoen patio bat da. Hala, parke batean edo mendian lortuko liratekeen jokabideak ahalik eta gehien transferituz (Baena & Baena, 2003). Bada, oraindik 6 urteko umeak izanik, beraientzako ezagunak diren espazioetan garatu dira saioak, progresio txiki bat jarraituz: leku itxi batetik irekiago batera, gimnasiotik jolastokira hain zuzen (Fraguela & Varela, 2016).

Egokitzapenekin jarraituz, ikasleen autonomia eta askatasun maila erregulatzeko lau aldagaiak kontuan hartu dira (Fraguela & Varela, 2016). Espazio ezaguna erabili denez, umeak ez dira batere galdu eta kontrolpean egon dira uneoro. Jokoetako ibilbidea izar motatakoa izan da lau saioetan, momentu oro jardunean jarraitzen zutela ziurtatzeko eta jolasaren garapen egokia konprobatu ahal izateko. Jolastokiaren eremu batzuetan izan ezik, taldeak begi bistan egon dira saio guztietan zehar eta 14 umerentzako bi heldu egoteak ekintzen funtzionamendu egoki eta dinamikoagoan lagundu duela uste dut. Monitoreon parte hartzea, modu batean, aktiboa izatea garrantzitsua izan da (Querol & Marco, 1998). Izan ere, pistak eta planoak interpretatzeko orduan gure laguntza eskaintzea garrantzitsua izan da beraientzat jolasteari ez uzteko.

Planoa eszenatokian sartzean zailtasun gehiago ikusi dira umeengan. 6 urteko txikientzat oraindik aspektu oso abstraktua da eta Piagetek 1981an deskribatutako espazioaren pertzepzioaren sailkapenean bi faseren artean ageri dira: espazio topologiko eta pertzepzio espazioa edo funtzionala. Ikasleek nola jadanik inguratzen dituen espazioa ezagutu eta memorizatzen duten ikusi da, pistak entzun edo ikusi bezain laster jakin izan dutelako jolastokiaren edo gimnasioaren zein eremura jo behar zuten. Espazioaren pertzepzioarekin lotuta, pista eta orientazio jolas hauen bitartez espazialitatea (inguratzen gaituenaren pertzepzioa) eta gorpuztasuna (gure buruaren pertzepzioa, non gauden jakitea) landu da, ikusmenaren bitartez informazioa jaso, egoera aztertu eta erabakiak hartu baitituzte (Rodriguez, 2013).

Amaitzeko, ikasleen behar asko ase direla esan daiteke, batez ere, sozializatu eta mugitu baitira (Robles, 2008). Parte hartzaileen garapen mental eta pertsonal txiki bat gauzatu dela esango nuke, autonomia eta erabaki hartzea asko landu baita, esfortzua eta ardura beharrezkoak izan baitira eta emozioen kudeaketa eman baita. Motrizitatea izan daiteke gutxien landu den aspektua, saioak eguneroko espazioetan garatu baitira eta mendiak emango zukeen ziurgabetasuna ez baitugu izan. Alderdi sozialean, aldiz, botere handia izan dezakegula ikusi da, joko hauen bitartez errespetua, talde lana eta komunikazioa bezalako baloreak landu baitira (Gómez-Encinas, 2008; Parra, 2001; Prouty et al., 2007; Santos & Martinez, 2011).

8. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Natur jardueren eta orientazioaren inguruko errebisio bibliografikoa egin eta gero, eta ideia nagusi horien aplikazioa sekuentzia didaktiko baten bidez gauzatu ondoren, azken atal honetan lanaren muga nagusiak eta hura hobetzeko egon daitezkeen planteamenduak azalduko dira.

Mugekin hasteko, proposatutako laugarren eta azkenengo saioa ez burutu izana muga handia kontsideratu daiteke. Ikasleen orientatzeko gaitasuna helburu nagusietako bat zen eta azken saio hau xede hori lantzeko eta ebaluatzeko aproposena zen. Hala ere, esan behar da beste bi helburu nagusiak (taldean aritzea eta erronkak gainditzea) azkeneko hau baino garrantzi handiagoa zutela xede-talde honekin, oraindik ume txikiak baitira eta beren espazio-pertzepzioa oraindik ez baitago garatuta.

Horrez gain, behin proposamen didaktikoa garaturik, saioak bata bestearen atzean egin izana oztopo bat bilakatu da saioen kalitatea altuagoa izateko nahian. Ikasle gutxi batzuen interesa asko jaitsi da, ziur aski saioen errepikaportasuna dela eta. Beraz, bi edo hiru astetik behin saio bat aurrera eramatea egokiagoa izango litzatekeela pentsatzen dut, behintzat adin honetako umeentzat.

Proposamen honen mugekin amaitzeko, eskolaz kanpoko ekintzetan martxan jarritako esku-hartze bat izateak garrantzi handia izan duela uste dut. HFko irakasgaietan, irakasleak denbora gehiago izaten du pistak, objektu ezkutuak eta zirkuitua prestatzeko ikastetxean zehar. Hortaz gain, monitorearekin konparatuz gero, askatasun handiagoa izan ohi du bere ikasleekin ikastetxetik irteteko eta mota honetako jolasak beste parke, auzo batean edo mendian egiteko. Aspektu honek

ikasleen motibazioa era esanguratsuan areagotu dezake eta, beraz, saioen kalitatea gora egin. Bestalde, eskolaz kanpoko ekintzetan eta are gehiago "Multikirolan", ikasleek etengabe jolasten aritzeko grina daukate eta mapa baten interpretazio eta behaketa bezalako ekintzak ez dituzte espero, saioaren garapena motelduz. HFn, aldiz, badakite saio batzuk dinamikoagoak izango direla eta beste batzuetan azalpen luzeagoak ere jasoko dituztela.

Lan hau **hobetzearren**, bi ideia nagusi ditut. Alde batetik, talde berdinarekin laugarren saio hori burutzeaz gain, espazio gehiagotan aritzea gomendagarria izango litzateke. Esate baterako, ikastetxeko eraikinaren barnean (ikasgelak, jantokia, liburutegia, ...) beste pista jolas bat egitea interesgarria izan daiteke. Lehen esan bezala, eskolatik irtetea eta auzoko parkeetan eta inguruko mendi inguruetan (Olarizun adibidez) orientazio joko bat aurrera eramatea ere oso erakargarria eta motibagarria izan ahal zaie ikasleei.

Hori bai, ikastetxetik LHko lehenengo zikloan irtetea agian ez da egokiena eta, horregatik, hurrengo zikloentzako proposamen didaktiko bat diseinatzea interesgarria izango litzateke. Jokoetan, zailtasuna graduatzearen, espazio motaren, ikasleen autonomia mailaren, planoaren eta beste zenbait aldagaien arabera aldaera ezberdinak sartu ahalko genituzke.

9. ERREFERENTZIAK

236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena, EHAA, zk,9 (114), Eusko Jaurlaritza.

Aguado, X, Funollet, F. & Giralt, C. (1989). Orientarse. De los sentidos a los instrumentos de orientación. *Revista Apunts Educación Física y Deportes*, 18. 11-18.

Arribas, H.F. (2008). *El pensamiento y la biografía del profesorado de Actividades Físicas en el Medio Natural: un estudio multicaso en la formación universitaria orientado a la comprensión de modelos formativos*. [Tesis Doctoral]. Universidad de Valladolid. <https://uvadoc.uva.es/handle/10324/56>

- Arribas, H.F. (2012). *Asignatura: Educación Física en el Medio Natural (curso 2012/13)*. Grado en Educación Primaria. Universidad de Valladolid. Facultad de Educación y Trabajo Social. Valladolid.
- Arufe, V., Calvelo, L., Gonzalez, E., & Lopez, C. (2012). Salidas a la naturaleza y profesorado de Educación Primaria. Un estudio descriptivo. *EmásF: Revista digital de educación física*, 19, 30-38.
- Baena, A., & Baena, S. (2003). Tratamiento didáctico de las actividades físicas organizadas en el medio natural, dentro del área de educación física. *Lecturas: Educación física y deportes*, 61. <https://www.efdeportes.com/efd61/afmn.htm>
- Baena, A. & Granero, A. (2011). Contribución de las actividades físicas en el medio natural a la consecución de las competencias básicas. *Trances*, 3(5), 609-632.
- Baena, A., & Granero, A. (2014). Estudio cuasi-experimental sobre actitudes de educación ambiental en Educación Física. *Cultura, Ciencia y Deporte*, 25(9), 25-33. Doi: <http://dx.doi.org/10.12800/ccd.v9i25.386>
- Barca, S. (2017). *Problemáticas y potencialidades en la actividad física en el medio natural: el caso de la orientación en primaria*. [Trabajo de Fin de Grado]. Universidad de Valladolid. <https://uvadoc.uva.es/handle/10324/27009>
- Barderá, J. (2011). El deporte de orientación en edad escolar. In *II Congreso del Deporte en Edad Escolar*. Urriak 26-28. Valentzia. Federación del Deporte de Orientación de la Comunidad Valenciana.
- Bernadet, P. (1991). Des A.P.P.N. aux A.P.E. Le rapport à l'environnement comme caractère générique In AA.VV., Actes de Deuxièmes Assises des Activités Physiques de Pleine Nature, 404-413.
- Caballero, P. (2012). Potencial educativo de las actividades físicas en el medio natural: Actividades de colaboración simple. *EmásF: revista digital de educación física*, 19, 99-114.
- Caballero, P. (2014). El desarrollo positivo y las actividades físicas en el medio natural. *Tándem*, 45, 42-52.
- Caballero, P., Hernández, E., & Reina, M. (2018). Análisis de factores universales de las actividades físicas en el medio natural/actividades físicas de aventura en la

naturaleza: estudio preliminar. *Espiral. Cuadernos del Profesorado*, 11(22), 61-68

Canales, I., & Perich, M. J. (2000). Las emociones en la práctica de las actividades físicas en la naturaleza. *Lecturas, Educación Física y Deportes Revista Digital*, 5(23). <https://www.efdeportes.com/efd23/emocnat.htm>

Cantero, N. P. (2011). Las Actividades físicas en el Medio Natural en Educación Primaria. *Innovación y experiencias educativas*, 41, 1-9. [https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero 41/NATIVIDAD DEL PILAR%20 ANTERO CASTILLO 2.pdf](https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero%2041/NATIVIDAD%20DEL%20PILAR%20ANTERO%20CASTILLO%202.pdf)

Casado, J. M. (2010). El deporte de orientación en el ámbito educativo: posibilidades didácticas del gimnasio 1. *EmásF: revista digital de educación física*, 7, 82-94.

Contreras, J., Contreras, A. & Román, C. (2005). Las actividades en el medio natural. Una propuesta interdisciplinar para educación primaria. Primera parte. *Lecturas: Educación física y deportes*, 85, 20. <https://www.efdeportes.com/efd85/medion.htm>

Dalmau, J. M., Arriscado, D., & Gargallo, E. (2016). Propuestas innovadoras de recreación por proyectos temáticos. *Tándem: Didáctica de la educación física*, 51, 13-23.

Escaravajal, J. C. (2017). La orientación deportiva como medio interdisciplinar. *Trances: Revista de Transmisión del Conocimiento Educativo y de la Salud*, 9(6), 885-908.

Federación Española de Orientación. *¿Qué es la orientación?*. <https://www.fedo.org/web/orientacion>

Fraguela, R. & Varela, L. (2016). Las actividades de orientación y conocimiento del entorno en educación primaria. *Tándem: Didáctica de la educación física*, 51, 24-31.

García, P., Martínez, A., Parra, M., Quintana, M. & Rovira, C.M. (2005). *Actividad física en el medio natural para Primaria y Secundaria*. Wanceulen.

García, P. y Quintana, M. (2005). *Introducción a actividades en la naturaleza*. Wanceulen.

- Gómez-Encinas, V., Luna, J. & Zorrilla, P. (1996). *Deporte de orientación*. Consejo Superior de Deportes.
- Gómez-Encinas, V. (2008). Juegos y actividades de reto y aventura en el contexto escolar. *Wanceulen E.F. Digital*, 4, 1-12.
- Gómez-López, A. (2008). El senderismo: actividad física organizada en el medio natural. *Wanceulen E.F. Digital*, 4, 131-141.
- Granero, A. & Baena, A. (2011). Propuesta didáctica para el trabajo de la orientación deportiva en centros educativos. *Revista de Transmisión del Conocimiento Educativo y de la Salud*, 3(6), 735-750.
- Granero, A., Baena, A., & Martínez, M. (2010). Contenidos desarrollados mediante las actividades en el medio natural de las clases de Educación Física en secundaria obligatoria. *Ágora para la Educación Física y el Deporte*, 12(3), 273-288.
- Guillén, R., Lapetra, S. & Casterad, J. (2000). *Actividades en la Naturaleza*. INDE.
- Hernández, G. (2005). Las actividades de orientación en educación primaria, en el área de educación física. *Docencia e Investigación: revista de la Escuela Universitaria de Magisterio de Toledo*, 15, 135-150.
- Julián, J. A. & Pinos, M. (2011). *Ejemplificación de educación física para segundo ciclo de primaria. Actividad: Orientación*. Departamento de Educación, Universidad, Cultura y Deporte del Gobierno de Aragón.
- Julián, J.A. & Pinos, M. (2013). *Orientación*. Gobierno de Aragón.
- Kronlund, M. (1991). *Carrera de orientación. Técnica, táctica y estrategia de la carrera de orientación y del trazado de recorridos para las competiciones*. <https://leonorientacion.files.wordpress.com/2009/01/carreras-de-orientacion-martin-kronlund.pdf>
- Martínez, A. (2007). *El deporte de orientación en la escuela*. Wanceulen.
- Martínez, C., & Del Moral, J. (1992). Propuesta de Secuencia de EF. Educación Primaria. MEC. *Escuela*.

- McNeill, C., Cory-Wright, J., & Renfrew, T. (2006). *Carreras de Orientación. Guía de aprendizaje*. Paidotribo.
- Miguel, A. (2001). *Actividades físicas en el medio natural en la educación física escolar*. Patronato Municipal de Deportes. Ayuntamiento de Palencia
- Moreno, E. (2011). Nuevas prácticas en el deporte escolar: escuela valenciana de ciclismo de montaña. In *II Congreso del Deporte en Edad Escolar*, Urriak 26-28. Valentzia. Universidad Católica de Valencia San Vicente Mártir.
- Olivera, J., & Olivera, A. (2016). Las actividades físicas de aventura en la naturaleza (AFAN): revisión de la taxonomía (1995-2015) y tablas de clasificación e identificación de las prácticas. *Apunts Educación Física y Deportes*, 124, 71-88.
- Parra, M. (1999). *La Educación Física en el siglo XXI*. Primer congreso internacional de educación física.
- Parra, M. (2001). *Programa de actividades físicas en la naturaleza y deportes de aventura para la formación del profesorado de segundo ciclo de secundaria*. [Tesis doctoral no publicada]. Universidad de Granada.
- Parra, M., Caballero, P. & Dominguez, G. (2009). Estrategias metodológicas para las actividades recreativas en el medio natural. In M. E. Garcia (coord.). *Dinámicas y estrategias de re-creación* (199-260 orr.). Grao.
- Piaget, J. (1981). *Epistemología y Psicología*. Ariel.
- Pinos, M. (1997). *Actividades físico deportivas en la naturaleza para niños y jóvenes*. Gymnos.
- Prouty, D., Panicucci, J. & Collinson, R. (2007). *Adventure education. Theory and applications*. Human Kinetics.
- Querol, S. (2003). *La orientación en Educación Física*.
<http://www.educacifisica.com/orientacion.htm>
- Querol, S. & Marco, J. (1998). *Créditos variables de actividades en la naturaleza: La orientación y la escalada*. Paidotribo.
- Rabadán, I. (2008). Aspectos positivos de la orientación para su inclusión en la escuela. *EFdeportes – Revista Digital de Educación Física y Deportes*, 118.

<https://www.efdeportes.com/efd118/aspectos-positivos-de-la-orientacion-para-su-inclusion-en-la-escuela.htm>.

Real Academia Española (s.f.). Orientación. In *Diccionario de la lengua española*. Recuperado en 04 de marzo de 2022 de <https://dle.rae.es/orientaci%C3%B3n>

Robles, J. (2008). La carrera de orientación. Un medio que contribuye al desarrollo multicultural en las escuelas. *Revista Wanceulen E.F. Digital*, 4, 119-130.

Rodríguez, D. O. (2013). *Orientación sobre la representación del espacio en el niño/a*. http://www.espaciologopedico.com/articulos/articulos2.php?Id_articulo=175

Sáez, J. (2008). El diseño de las actividades en el Medio Natural en el nuevo currículo de Educación Secundaria Obligatoria a partir de la Ley Orgánica de Educación (LOE). *Ágora para la Educación Física y el Deporte*, 7-8, 99-124.

Santos, M. L. & Martínez, F. (2008). Las actividades en el medio natural en la escuela. Consideraciones para un tratamiento educativo. *Wanceulen E.F. Digital*, 4, 26-53.

Santos, M. L. & Martínez, F. (2011). Aprendizaje integrado de las actividades en el medio natural desde las competencias en la ESO. *Tándem*, 36, 53-60.

Valero, A., Granero, A., Gómez, M., Padilla, F.A. & Gutiérrez, H. (2010). Diferentes propuestas para la enseñanza de la orientación a nivel escolar: orientación en el aula de educación física, orientación urbana y orientación subacuática. *Apunts Educación Física y Deportes*, 99, 34-46.

10. ERANSKINAK

1.eranskina: 1.saioaren deskribapena

1.SAIOA	
ESPAZIOA	Gimnasioa
DENBORA	1h

HELBURUAK	1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2
SAIOA	<p>Prestaketa (10’):</p> <p>Hasteko, nik pista jolasa gimnasioan prestatzen dudun bitartean, laguntzaile bezala ari den monitoreak patiora eramango ditu beroketa jolas bat burutzeko (buztanak lapurtu). Gimnasioko 18 leku ezberdinetan puzzle moduko piezak ezkutatuko dira.</p> <p>Azalpena (5’):</p> <p>Behin jolasa prest dagoelarik, umeak gimnasia sartu eta borobil batean eseriko dira. Monitoreak jolasa pixkanaka eta argibide guztiak emanaz azalduko die eta sortu daitezkeen zalantzak argituko ditu.</p> <p>Hiru taldetan banatuko dira ikasleak.</p> <p>Jolasaren funtzionamendua: Talde bakoitzari irudi bat erakutsi eta emango zaio, zeinetan puzzle pieza aurkitu ahal izateko pista ageriko zaien. Adibidez, irudi batean eskalatzaile bat agertzen bada, horma-barretan bilatu beharko dute pieza. Behin pieza aurkituta, monitorearengana bueltatu beharko dira zuzena den ziurtatzeko, eta hala bada, hurrengo irudia emango zaie. Horrela jarraituko dute sei pieza aurkitu arte</p> <p>Pieza guztiak eskuratzean, lortutako ordenan lotu eta ezkutuko hitza deszifratuko dute. Pieza bakoitzaren barnean agertzen den objektu/animali/edozeinaren inisiala izango da pieza horren hizkia. Dena ondo badao, “ERREKA” hitza lortu beharko lukete.</p> <p>Garapena (30’):</p> <p>Jolasari hasiera emango zaio, baina ez dago denbora mugarik eta ez da lasterketa bat izango.</p> <p>Monitorea gimnasioaren erdigunean dagoelarik, taldeen portaera, jokabidea eta abar kontrolatuko du. Horrez gain, irudiak deszifratzeko</p>		

	<p>arazoak izanez gero laguntza pixka bat emango die.</p> <p>“ERREKA” hitza lortzean, talde osoa elkartu eta jolasa komentatuko da.</p> <p>Lasaitasunera buelta (10’):</p> <p>Pista jolasa ze nolakoa iruditu zaien komentatuko da bukatu bezain laster. Zailtasuna galdetuko zaie, gustukoa izan den ala ez, guztiek parte hartu duten ala ez ...</p> <p>Amaitzeko, hurrengo saioei begira, gimnasioko plano bat erakutsi eta azalduko zaie ikasleei. Planoko eta errealitateko objektuak erlazionatuko ditu (sarrera, irteerak, armairu ezberdinak, ...). Adibide modura, talde batek jolasean burututako ibilbidea marraztuko da mapa horretan.</p>
--	---

2.eranskina: 2.saioaren deskribapena

2.SAIOA			
ESPAZIOA	Patioa		
DENBORA	1h		
HELBURUAK	1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2, 3.3	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2, 3.3
SAIOA	<p>Prestaketa (10’):</p> <p>Hasteko, nik pista jolasa patioan prestatzen dudana bitartean, laguntzaile bezala ari den monitoreak patioan atzeko eremura eramango ditu beroketa jolas bat burutzeko (harrapaketa). Patioan 15</p>		

toki ezberdinetan puzzle moduko piezak ezkutatuko dira aurreko saioan bezala

Azalpena (10'):

Gaurkoan gutxi azaldu behar zaie, aurreko eguneko funtzionamenduaren antzekoa baita. Ezberdintasun bakarra patioan izango dela eta planoak erabiliko dela izango da. Tarte honetan, ikasleei patioako mapa erakutsiko zaie eta piezak aurkitutako tokiak arkatz batekin markatu beharko dituztela azalduko zaie.

Jolasaren funtzionamendua: Talde bakoitzari irudi bat erakutsi eta emango zaio, zeinetan puzzle pieza aurkitu ahal izateko pista ageriko zaien. Adibidez, irudi batean barazkiak agertzen badira, baratzean bilatu beharko dute pieza. Behin pieza aurkituta, monitorearengana bueltatu beharko dira zuzena den ziurtatzeko, eta hala bada, planoan, piezaren ezkutalekua markatzen saiatuko dira. Ondoren, hurrengo irudia emango zaie eta horrela jarraituko dute bost pieza aurkitu arte

Pieza guztiak eskuratzean, lortutako ordenan lotu eta ezkutuko hitza deszifratuko dute. Pieza bakoitzaren barnean agertzen den marrazkiaren inisiala izango da pieza horren hizkia. Dena ondo badao, "BARRI" hitza lortu beharko lukete.

Garapena (30'):

Jolasari hasiera emango zaio, baina ez dago denbora mugarik eta ez da lasterketa bat izango.

Monitorea patioaren toki zehatz batean dagoelarik, taldeen portaera, jokabidea eta abar kontrolatuko du. Horrez gain, irudiak deszifratzeko edota mapan bisitatutako lekuak identifikatzeko arazoak izanez gero laguntza pixka bat emango die.

"BARRI" hitza lortzean, talde osoa elkartu eta jolasa komentatuko da.

Lasaitasunera buelta (10'):

Pista jolasa ze nolakoa iruditu zaien komentatuko da bukatu bezain laster. Zailtasuna galdetuko zaie, gustukoa izan den ala ez, guztiek

	parte hartu duten ala ez, planoan tokiak identifikatzea zaila izan den ala ez ...
--	---

3.eranskina: 3.saioaren deskribapena

3.SAIOA			
ESPAZIOA	Patioa		
DENBORA	1h		
HELBURUAK	1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1
SAIOA	<p><i>Prestaketa (10'):</i></p> <p>Hasteko, nik pista jolasa patioan prestatzen dudan bitartean, laguntzaile bezala ari den monitoreak patioko atzeko eremura eramango ditu beroketa jolas bat burutzeko (biko banda adibidez). Patioko 15 toki ezberdinetan kolorezko igelak eta zakutxoak ezkutatuko dira aurreko saioan bezala.</p> <p><i>Azalpena (10'):</i></p> <p>Objektuak ezkutaturik, ikasleak hirukoteka banatuko dira, guztira bost</p>		

talde osatuz. Jarraian, jokoa azalduko zaie.

Jolasaren funtzionamendua:

Hirukote bakoitzak hiru igel/xakutxo aurkitu beharko ditu patioan zehar. Horretarako, monitoreak banan-banan pista bat emango die, txarteltxo batean agertzen dena ozen irakurriz. Ikasleek pista ulertu, objektua aurkitu, monitorearengana ekarri eta zuzena den konprobatuko da. Hala bada, hurrengo pista irakurri eta emango zaie, hirurak lortu arte.

Garapena (10'):

Aurrekoetan bezala, jolasari hasiera emango zaio, baina ez dago denbora mugarik eta ez da lasterketa bat izango.

Monitorea patioaren leku zehatz batean dagoelarik, taldeen portaera, jokabidea eta abar kontrolatuko du. Horrez gain, pistak deszifratzeko identifikatzeko arazoak izanez gero laguntza pixka bat emango die.

Lasaitasunera buelta (30'):

Pista jolasa ze nolakoa iruditu zaien komentatuko da bukatu bezain laster. Zailtasuna galdetuko zaie, gustukoa izan den ala ez, guztiek parte hartu duten ala ez ...


Saioa amaitzeko, soberan geratzen den denboran, beste jolas batzuetara jolastuko da.

4.eranskina: 4.saioaren deskribapena


4.SAIOA			
ESPAZIOA	Patioa		
DENBORA	1h		
HELBURUAK	1.1, 1.2, 1.4, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2, 3.3	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1.1, 1.2, 1.4, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2, 3.3
SAIOA	<p><i>Prestaketa (10'):</i></p> <p>Monitore batek zirkuitua prestatzen duen bitartean, besteak ikasleak hartu eta jolasen bat egingo du berotzen hasteko. Patioan zehar igelak eta zakutxoak ezkutatuko dira tarte honetan.</p> <p><i>Azalpena (5'):</i></p> <p>Behin objektuak ezkutaturik, umeak borobil batean eseriko dira jolasa argi azaltzeko. 3 talde osatuko dira. Patioko plano berri bat emango zaie eta hura era egokian interpretatzeko eta beren burua ondo orientatu ahal izateko, berriro ere non gauden eta elementu gakoak adieraziko zaizkie. Mapa honetan, talde bakoitzari 6 zenbaki agertuko zaizkio (1etik 6ra). Dena argi badago, orientazio jolasari hasiera emango zaio.</p>		

	<p>Jolasaren funtzionamendua:</p> <p>Talde bakoitzak, mapa euskarri bezala izanda eta aurreko saioetan izandako irudizko edo ahozko pistarik gabe, ezkutatutako igelak eta zakutxoak bilatu beharko ditu. Kide guztiak elkarrekin joan beharko dira banan-banan objektu guztiak biltzen, eta ez bakoitza bere kabuz lehenago amaitzeko. Ezkutatutako objektu bana aurkitzean, hasiera puntura abiatu eta monitoreekin zuzena den ala ez konprobatuko da.</p> <p>Garapena (20’):</p> <p>Jolasari hasiera emango zaio, baina ez dago denbora mugarik eta ez da lasterketa bat izango, orientazio lasterketa baten antzekotasun handia izan arren.</p> <p>Monitoreak hasiera puntuan kokatuko dira eta, taldeen portaera, jokabidea eta abar kontrolatuko dute. Horrez gain, mapa orientatzeko eta elementuak identifikatzeko arazoak izanez gero laguntza pixka bat emango zaie.</p> <p>Lasaitasunera buelta (10’):</p> <p>Talde guztiek ekintza amaitzean, arin-arin zer moduz joan zaien komentatuko da, zein sentrazio izan dituzten, zailtasun maila, eta abar.</p> <p>Amaitzeko, lasaitasunera bueltatzeko jolasen bat egingo da.</p>
--	---


5.eranskina: Materialaren irudiak



Gimnasioko plano




Jolastokiko plano



1.saioko piezak "ERREKA" hitza osatuz



1.saioko pista-irudiak



3.saioko pistak

6.eranskina: 1.saioko emaitzak

IKASLEA	JOLASAREN ULERMENA (1-5)	PARTE HARTZE AKTIBOA (1-5)	KOLABORAZIOA (1-5)	GATAZKEN KUDEAKETA (1-5)
Aimar F	5	5	3	4
Aimar A	5	5	3	5

Xumai	4	4	5	5
Eneko	5	4	4	4
Bibek	5	5	3	4
Bruno	4	3	5	5
Beñat	5	5	3	5
Malen	4	4	4	4
Gaizka	4	5	4	5
Narrea	5	4	4	5
Izane	3	3	3	4
Ixone	4	5	3	3
Leire	4	4	4	4
Irati	4	5	3	4

6.taula. Jokabidearen ebaluazio txantiloia. 1: Oso gutxi; 2: Gutxi; 3: Nahiko; 4: Oso ondo; 5: Bikain

TALDEA	Laguntza etengabe eskatu dute	Laguntza pixka bat jaso dute	Laguntzarik gabe ibili dira
1.taldea		x	
2.taldea		x	
3.taldea		x	

Taula. Pisten ulermen ebaluazioa

TALDEA	PIEZAK / IGELAK eta ZAKUTXOAK						HITZA
	1	2	3	4	5	6	
1.taldea	x	x	x	x	x	x	Bai
2.taldea	x	x	x	x	x	x	Bai
3.taldea	x	x	x	x	x	x	Bai

Taula. Kontrol txartela

7.eranskina: 2.saioko emaitzak

IKASLEA	JOLASAREN ULERMENA (1-5)	PARTE HARTZE AKTIBOA (1-5)	KOLABORAZIOA (1-5)	GATAZKEN KUDEAKETA (1-5)
Aimar F	5	5	4	5
Aimar A	5	5	5	5
Xumai	5	3	5	5
Eneko	5	4	4	5
Bibek	5	2	2	4
Bruno	5	5	5	5
Beñat	5	5	4	5
Malen	5	3	4	5
Gaizka	5	5	5	5
Naroa	5	5	5	5
Izane	5	3	4	5
Ixone	5	5	4	5
Leire	5	4	4	5
Irati	5	4	4	5

6.taula. Jokabidearen ebaluazio txantiloia. 1: Oso gutxi; 2: Gutxi; 3: Nahiko; 4: Oso ondo; 5: Bikain

TALDEA	Laguntza etengabe eskatu dute	Laguntza pixka bat jaso dute	Laguntzarik gabe ibili dira
1.taldea		x	
2.taldea			x
3.taldea		x	

Taula. Pisten ulermen ebaluazioa

PIEZAK / IGELAK eta ZAKUTXOAK						
TALDEA	1	2	3	4	5	HITZA

1.taldea	x	x	x	x	x	Bai
2.taldea	x	x	x	x	x	Bai
3.taldea	x	x	x	x	x	Bai

Taula. Kontrol txartela

8.eranskina: 3.saioko emaitzak

IKASLEA	JOLASAREN ULERMENA (1-5)	PARTE HARTZE AKTIBOA (1-5)	KOLABORAZIOA (1- 5)	GATAZKEN KUDEAKETA (1-5)
Aimar F	5	5	4	3
Aimar A	5	5	5	5
Xumai	5	5	5	5
Eneko	5	3	4	4
Bibek	5	2	2	1
Bruno	5	5	5	5
Beñat	5	5	5	5
Malen	5	3	3	5
Gaizka	5	5	5	5
Naroa	5	1	1	5
Izane	5	4	4	2
Ixone	5	1	1	5
Leire	5	1	1	5
Irati	5	4	3	5

6.taula. Jokabidearen ebaluazio txantiloia. 1: Oso gutxi; 2: Gutxi; 3: Nahiko; 4: Oso ondo; 5: Bikain

TALDEA	Laguntza etengabe	Laguntza pixka bat	Laguntzarik gabe
--------	-------------------	--------------------	------------------

	eskatu dute	jaso dute	ibili dira
1.taldea		x	
2.taldea		x	
3.taldea		x	

Taula. Pisten ulermen ebaluazioa

TALDEA	IGELAK eta ZAKUTXOAK		
	1	2	3
1.taldea	x	x	x
2.taldea	x	x	x
3.taldea	x	x	x
4.taldea	x	x	x
5.taldea			

Taula. Kontrol txartela